

uk

111. zenbakia / 2006 abenduak 20



Badator Olentzero!!



nemónica

UK galeria > Txetxu Berruezo



Sestaoko La Iberia auzoan hazi zen Txetxu Berruezo (Sestao, 1956). Kaikun arraunean ibili zen eta Kontxako bandera bi irabazi zituen. Astilleros del Cadaguan beharrean ibili zen hogei bat urtez ontzi deliniagintzan. Argazkigintzan, ordea, 1983an hasi zen Eder bere semea jaio zenean eta, jakina, haurren erretratuak izan ziren bere lehenengo lanak. Apurka-apurka fotografiaren munduan sartu zen eta 1985ean lanean lan-utzialdia eskatu eta Euskadi aldizkarian argazkilari lanetan hasi zen. 1992tik aurrera argazkilari profesional modura dabil beharrean eta makina bat komunikabideren kolaboratzailea da, besteak beste, El Correo, El Pais, Woman eta Casa Vogue. Moda, arte eta dekorazio publizitate lanak ere egiten ditu. Lortu dituen sari ugarien artean 1989ko Fotopressa azpimarra daiteke. Ezagutzen dutenek oso argazkilari oldarkorra, detailetarako begirada zorrotza eta ausarta dela esaten dute.



Deustuko zubiko detailea

«Urte berri, urte zahar, Manuel Tonto prakazahar» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Komiki azoka. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxo Gustavo Adolfo Becquer kalea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Euskara showa, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Txixarro punte, A. M.
30. BERBETAN. Edorta Roman, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Lehengo opariak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Bilbao Film Comission. Oskar Fernandez zutabea.
43. MUSIKA. Jon Urbe, rock argazkiak. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Euskadi Sariak. Liburu erreseinak.
45. KIROLAK. Punta Galea Big Challenge.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Irati Elorrieta.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, La sarten de la Cordelera.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Kutxus Areatxu fanfarrea, 1982. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Xabier Madariaga.



30 Edorta Roman



11 Xuan Hai

Berbetan

Algortarra jaiotzez, sopeloztarra azken 12 urteotan. Roman fisikaria eta eguraldi gizona da.



34 Lehengo opariak



36 Irati Elorrieta



54 Xabier Madariaga



22 Esther Zorrozuza

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamirruaga, Amaia Arriaga, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

2007 arte

Aurtengo azken UK duzu hau, irakurle. Data hauetan, urtero legez, eguberri on... eta hori guztia opa behar dizuegu. Beraz, badakizu... hori guztia!


Gu, sasoi honetan, ohiko moduan eta aldizkaria argitaratzeari dagokionez, atsedendaldia hartzera goaz eta, beraz, jakin ezazu hurrengo UK urtarilaren akabuan jasoko duzula etxean. Honek ez du esan gura, ordea, ordura arte geldi egongo garenik; izan ere, dagoeneko datorren urteko UK prestatzen hasi gara-eta. Aldizkari hobea egiten ahaleginduko garela esan beharrik ez dago, horixe da gure asmoa behintzat.

Baina 2006 bere azkenetan dagoenean, aurtengo lanaren errepaso txikia egin gura izan dugu. Bada, hoguei UK-k ikusi dute argia 2006an. Bestetik, argazki erakusketa bi ekoiztu ditugu. Lehenengoa, Asier Mentxaka gure argazkilariarena eta urtean zehar eskualdeko herri gehienetan ikusi ahal izan dena. Bigarrena, eskualdeko puntako argazkilarien taldearena, itsasoaren ingurukoa. Erakusketa hau 2007an ibiliko da herriz herri. Bestetik, berriki abian ipini dugu *agendaUK* berripaper elektronikoa. Maiztasun finko bako agerkari xume honek eskualdean euskaraz antolatzen diren ekitaldien berri era azkarrean ematen du. Jaso gura baduzue mezua bidali *agendauk@aldizkaria.biz* helbidera. Azkenik, urtarilaren lehenengo egunetan barazkien gaineko poster dotorea argitaratuko dugu (informazio gehiago zenbaki honen 10. orrialdean).

Amaitzeko, eta esan bezala, urtarilaren akabuan atzera jasoko duzu UK zure etxean. Ordura arte: urtebarri on, –eta ahal baduzu– *ondo pasa, gitxi gasta eta bueltak amari!* 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

Ziaboga unea

Urtea bukatzeaz dugu. Abenduaren 31, ordea, geure buruetan baino ez da zerbaiten bukaera. Egunotan ez da ezer amaituko, ezta ezer hasiko ere. Dena dela, nik urte bukaera hori txikitatik irudikatu dut estropada batean zيابoga egiteko ordua iritsi izan balitz bezala, txanpa berriari ekiteko prest, atsedendaldia hartzeko unea labur baino laburragoa berriz ere ziztu bizian abiatu aurretik. Horixe da niretzat urte bukaera: txanpa baten amaiera, berriaren hasiera, dena bat. Bizitza, berriz, txanpa bakarra da, zيابogarik gabea. Beti aurrera, ez dago atzera egiterik, sarritan horrek amorratzen gaituen arren. Hala ere, pentsa dezagun gure irudimenean baino existitzen ez den zيابoga-une hori zein etekin handia ateratzen diogun: atzean utzi dugun txanpan zehar egindakoari begirada kritikoa egiteko aukera da, ondo eta txarto eginak aztertu eta geure buruari aurreko txanpan izandako hanka-sartzeak txanpa berrian ez errepikatzeke asmoa agintzekoa. Ea egia den. 4

[irudia]



KOMIKI ARETOA, 2006

Hortzak erakutsiz! / Pasa berri den Komiki Aretoan ikus zitekeen maketetako bat duzue irudian. Etor daitekeenaren aierua edo bihozkada txarra den ez dugu pentsatu ere egin gura. Alabaina, kristauak aintzatu, loriatu edo laudatzen duten gizaseme gorena jaio zeneko 2006. urteurrena ospatzen den garaioan zoriontsu izatera behartuta, derrigorlari egon behar izateaz ez gatoz bat. Zoriontsu izateko baldintzak badauzkazue gozatu momentuz! Baina gure mundu hau gizasemez jantzitako deabruak maneiatzen duten heinean, zoritxarrekoak gehiago direla baieztatzeke baimena badaukagu. Hala eta guztiz ere, Urteberri on! m / Argazkia: **Asier Mentxaka**



ARGIA egutegia 2007 salgai dagoeneko

Azalean

- ▶ eguzkia eta ilargiari dagozkionak
- ▶ santutegia
- ▶ gizon-emakumezkoen euskal izenak
- ▶ itsasgora eta itsasbeheren inguruko informazioa

Atzealdean

- ▶ egunarekin lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak

NOBEDA



Egutegia: 7,50 € · Taula: 50 € + egutegia opari

eskaerak

© 943 371 545 · denda@argia.com · www.argia.com/denda



www.argia.com

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



[orain]

ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO G. ADOLFO BECQUER KALEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > elizatik kantari



Amuriza eta Lopategi, Barrikan San Andres egunean

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Ai Amuriza, ai Amuriza,
garai bateko abade,
sekula ahaztu zenduzan horreek
barriz zeugana jo dabe.
Bardin fededun zein bertsozale,
tabladu edo aldare,
sermoilaria izango zinan
baita eskumikatuta be.

Ai Lopategi, ai Lopategi,
zorrotza zara benetan,
baina ez pentsau neuk abiturik
itxi nebanik penetan.
Apaiz guztiak bertsolariak
balira mundu honetan
eleizak lepo beteko ziran
zapatu arrastietan.

Ai Amuriza, Ai Lopategi
joan gaitezake bakean
zer esanik be izango dogu
bertsoz hurrengo batean,
biok kantuan segiko dogu
eleizaren aterpean
isilik eta hankak aurretik
sartzen ez garen artean.

* Doinua: Goizian goizik jelki ninduzun

Iruña-Veleia > euskarazko arrastoak benetakoak direla frogatu dute



Argazkian, Iruña-Veleiako aztarnategiko lanak

Iruña-Veleiako aztarnategian aurkitu dituzten euskarazko berbak k.o. III. mendekoak, hau da, benetakoak direla probatu du bertako talde ikerlariak. Beraz, (batzuen gogoz kontra esan beharra dago), euskaraz idatzitako berba zaharrenak dira Araban aurkitutakoak eta horrek zeharo aldatuko du orain arte Euskal Herriaren historiarekiko geneukan ikuspegia; gure hizkuntza gure herriaren ardatz nagusia da-eta. “Zuri”, “urdin”, “gorri” koloreak; “edan”, “ian”, “lo” aditzak eta “Jesus”, “Ioshe ata” eta “Mirian ama” erlijio adierazpenak dira, zehazki, adituen artean polemika piztu duten berbak. Frantziako CEA-CNRS laboratorietan burutu dituzte probok eta aztarnok faltsutzea ezinezkoa dela nabarmendu dute, euren esanetan, denboraren poderioz bakarrik sor daitezkeen elementuak dituztelako. Zein izango da Iruña-Veleiak ekarriko digun hurrengo ezustekoa? m

ingurunea > itsas-labarra zaintzeko Arriaterako eraikinak botako dituzte



Franco garaian leherrazi zuten Arriatera hondartzako itsas-labarra

Arriatera hondartzan dauden eraikinak botatzea erabaki dute Sopelako Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Itsas-labarra indartzeaz gain, balio geologiko handia daukan beta gorria berreskuratzeko balioko du onartutako neurriak; izan ere, beta hori Gipuzkoako Aizkorri mendian jaio eta Sopela zeharkatzen du, labarreraino. Franco garaian lehertu zuten beta; beraz, balio historikoa ere garrantzitsua dela azpimarratu du Imanol Garai alkateak. Lanak datorren urtean hasiko dira eta lau hilabeteren buruan amaituta egotea espero dute. Behin eraikinak kenduta, hondartza handituko dute labarraren hasieraino eta 100 metro koadroko behin-behineko eraikin bat ipiniko, hondartzagaz zerikusirik daukaten zerbitzuak bertan egon daitezken. Horrez gain, Zientzotxe kalean hondartzarako sarbide zuzena egingo dutela agindu dute. m



BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

saiazgetaria

HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa





..haria
...lehengo garaiak...
...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

euskara > AIZU! aldizkariak 25 urte bete ditu



1981eko Durangoko Azokan ikusi zuen argia lehenbiziko aldiz *AIZU!* AEKren aldizkariak, Bilboko euskara irakasle eta ikasle batzuen ekimenez. Orduetik, ikasleei euren ikas-prozesuan laguntzeko tresna izaten ahalegindu da argitalpena eta, orain arte ikusi dugunagatik behintzat, bere helburua betetzen duela ematen du. Ikasleentzat egindako produktua da *AIZU!* eta irakasleei erabilgarria suertatzen zaie eskolak prestatzerako orduan. Urteurrena dela-eta, aldizkariaren azken zenbakia berezia izan da oso: bere historian zehar argitaratutako 25 elkarrizketa, 25 erreportaje, 25 albiste... hautatu dituzte kaleratzeko. Horrez gain, abenduaren 1ean jaia antolatu zuten Kalderapeko Kulturgunean eta ikasturte osoan zehar euskaltegiz euskaltegi mugituko den erakusketa ibiltaria prestatu dute, 25 urteotan argitaratutako portadakaz. Zorionak *AIZU!* m

Aizuk!-k kaleratu berri duen ale berezia

posterra > UK-k barazkien inguruko hormairudia argitaratu du



Barazkien izenak euskaraz batzen dituen poster ederra kaleratu du UK-k. Ortuari bakoitza erosteko eta jateko garai egokia zein den erakusten du hormairudiak eta izenak gaztelaniaz, frantsesez zein latinez ere eskaintzen ditu. Helburu bikoitzagaz plazaratu du UK-k posterra: alde batetik, osasuntsuago jateko ohitura zabaltzeko eta, bestetik, euskara (ortuariak izendatzeko eskualdeko berbak erabili dira batez ere) etxetako sukaldeetan sartzeko. Hori guztia posterraren diseinu koloretsu eta erakargarria ahaztu barik; izan ere, irudi oso landuak dauzka. 3.000 ale argitaratu dira guztira eta Getxoko Euskara Zerbitzuan zein UK aldizkariaren bulegoan doan jaso ahal izango dira urtarrilaren 8tik aurrera. Beraz, posterra sukaldeko horman eskegi gura duenak leku horietatik pasatu besterik ez dauka. Hormairudi barik geratzeko prest al zaude? m

Barazki bakoitza erosteko garai aproposa zein den esaten digu posterrak



Xuan Hai > Algortako Hong Kong jatetxeko jabea


Alde batetik bestera, lan eta lan. Zaila egin zitzaion Xuani gurekin berba egiteko tarte bat topatzea, ezin zituelako bezeroak alde batera utzi. Txinatarrak oso langileak direla esaten da eta Hong Kong jatetxeko jabearen erritmoa ikusita, egia borobila dela esan daiteke. Hala ere, inoiz ez du aurpegiko irribarra galtzen. *“Horrelakoa da bizitza, zerbait behar duzunean ez duzu lortzen eta ez duzunean behar...”* esan digu Xuanek gero eta bezero gehiago sartzen direla ikustean. Baina, honen ostean, barre-algaraka hasi da berriro. Hamalau urte pasa dira jada Algortara etorri zenetik eta hemen oso gustura bizi dela aitortu digu. Ez zen bakarrik etorri, bere 10 neba-arrebak eta gurasoak berarekin etorri ziren. Etxekoek ere hemengo bizitza gustuko dutela uste du: *“Batzuei gehiago besteei gutxiago, baina nik uste orokorrean denei gustatzen zaie hau”*. Hasieran, jaioterriko argazkiak eta abestiak entzutean herrimina sentitzen zuela aitortu digu, baina denborarekin ohitu egin da, *“gainera nik familia daukat hemen eta horrek asko egiten du”*. Bere herrira gutxitan joaten dela esan digu tristuraz *“lantzean behin Vietnamera edo Txinara joaten naiz, aita txinatarra da-eta, ama, berriz, vietnamdarra”*. Baina dena ez da lana Xuanen bizitzan. Algortar peto bezala, Portu Zaharreko eskaileretan garagardoak hartzea eta hondartzara igeri egiten jaotea gustatzen zaio. Horrez gain, etxean landatu berri dituen sagarondo, pikondo eta madariondo zaintzen ematen du denbora. Euskaldunekin ondo konpontzen da, *“denetarik dago, leku guztietan bezala, baina orokorrean jatorrak zarete”*. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografia

global printers

Villa de Plentzia ó. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Enpresa eta ekonomia egoera

Zerbitzuen sektorea jaun eta jabe da udalerrian, eta **getxoztar** bakoitzeko **errentaren batez bestekoa hirugarrena** da Bizkaiko udalerrien artean

Hil hasieran ordezkari edo egoitza berria zabaldu du Getxon Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak. Getxoko Udalak eta Merkataritza Ganberak sinatutako hitzamenaren helburua erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuetako batzuk udalerriko eta eskualdeko enpresa txiki, ertain eta salerosleei hurbiltzea da, besteak beste. **Algortako Martin Deuna kaleko 17.ean, Behargintza zentroan dago Ganberaren bulego berria.**

Eskualdeko garapen sozioekonomikoa eta azpiegiturak bultzatu, enpresen eta enpresaburu autonomoen eskaerei erantzun eta inguruko lehiakortasun baldintzak hobetzea da Merkataritza Ganberaren asmoa. Arduradunek azaldu dutenez, *“horren albotik, ekintzaileen ekimenak sustatuko dituzte enpresa berriak sor daitezkeen eta administrazio tramiteak erraztuko zaizkie enpresei. Enpresentzat eskainiko ditugun zerbitzuen artean hurrengoak daude: nazioartekatzea, prestakuntza, enpresen arteko gatazken konponbidea, merkataritza alorreko aholkularitza, berrikuntza, hiriko merkataritza guneentzako laguntza edota kostuak gutxitzea...”*

Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak eta Bilboko Merkataritza Ganberako zuzendari nagusi Juan Luis Laskurainek, batakoa ala besteak, akordioa oso garrantzitsutzat jo dute enpresen, autonomo profesionalen eta ekintzaileen eskaerei erantzuteko.

Ordezkaritza berria eta bere helburuak ezaugarritzeaz gain, udalerriko (eskualdekoak ere



Getxon 6.380 establezimendu daude

bai) enpresa eta ekonomia egoeraren gaineko txosten bat ere ezagutarazi dute.

Getxoko ekonomia egoera

Getxon 3. sektorea da jaun eta jabe, zerbitzuen alorra da udalerraren ekonomiaren eragile nagusia %80ko portzentaia gatz. Horren atzetik

«Getxoztar bakoitzeko batez besteko errentak Bizkaikoa gainditzen du»

industriak eta eraikuntzak betetzen dute bigarren postua, industriak balio erantsiaren %19 osatzen du eta eraikuntzak %1,7; hala, datuok alor horietan Bizkaiko batez bestekoaren azpitik kokatzen dute Getxo. Amaitzeko, Lehenengo sektoreak (nekazaritza eta arrantza) %0,1 besterik ez du betetzen. Horren albotik, udalerrian 6.380 establezimendu daude eta

horien %90ek zerbitzuen alorrean dihardute. Industria sailean dabilzan establezimenduak 175 dira eta eraikuntzakoak 450. Oro har, Getxoko establezimenduen kopuruak Bizkaikoen %6 osatzen dute.

Bestalde, getxoztar bakoitzeko BPG (Barne Produktu Gordina) 10.790 eurokoa da, Bizkaiko batez bestekoa baino txikiagoa, 7.180 euro gutxiago. Hala ere, getxoztar bakoitzeko errenta 14.920 eurokoa da, Bizkaiko batez bestekoa gainditzen du eta udalerriri bizkaitar guztien artean hirugarren postuan dago, Laukiz eta Sukarrietaren atzetik. m

Datu batzuk

- Azalera: 11,64 metro koadro
- Biztanleak: 82.285
- Bizkaiko udalerrietatik biztanle gehien dauzkan hirugarren udalerria

Salsiduko arrapala mekanikoen lanen aurrekontua 2.150.000 eurokoa da



Algortako Salsidu kale aldapatsua

Villamonte eta Aldapa auzuneak lotuko dituzten arrapala mekanikoak eraikitze lanen egitekoa laster aterako du lehiaketara Getxoko Udalak. Egitasmoaren idazketa 40.457 euroren truke esleitu zuen Udalak, eta hori aurkeztu ostean, eraikitze lanen aurrekontua 2.150.000 eurotan zehaztu dute. Lanen hasiera martxoak iragami dute eta zortzi hileko epean, hau da, urri ingururako amaituta egotea espero dute udal arduradunek.

Esan daiteke, Udaleko teknikariak egindako aurreproiektuari jarraitzen diola azkenengo egitasmo horrek ere. Hala, Iturgixirainoko arrapala eskoi aldean ipiniko dute. Horra helduta oinezkoentzako pasabidea pasa eta ezkerretik igoko da

arrapala Villamonteko sarreraraino. Bidean zenbait garaje egoteak egitasmoa zaildu egingen du eta horregatik 9 lanalditan garatuko dute proiektua.

Getxoko alkate Iñaki Zarrakoaren ahotan *“inguruko auzokideek aspalditik espero zuten egitura da, Algortako bebeko eta goiko aldeak lotuko baititu eta metroko geltokira heltzea ere erraztuko baitu”*.

Bestalde, Salsidu kalea eta Julio Caro Baroja Institutura sartzeko gurutzebidean biribilgune bat ipintzea ere aurreikusten du proiektuak. Egiteko hori gauzatzeko lanak esleitura dauzka dagoeneko Udalak eta Gabonen ostean hastekoak direla adierazi du. m

DAGOENeko ABRA AQUARIUM GETXO AQUARIUM BIHURTU DA

Dagoeneko Getxoko Udalak hartu du bere gain Abra Aquariumaren kudeaketa, beraz, Getxo Aquarium izena hartu du akuarioak. Udala hainbat inbertsio egitea aztertzen dabil, adb: informazio soinu-gida batzuk zenbait hizkuntzatan, arrainontzi berriren bat, sarrera egokitu... Ondasun batzuk erosi ostean egin da Udala akuarioaren arduradun eta milioi bat euro inbertitu ditu (600.000 euro Aldundiak). Laster akuarioaren ustiaketa lehiaketa publikora aterako dute, eta Udalak hilero 24.000 euroko dirulaguntza emango du akuarioa zabalik mantentzeko.

ARRATOIAK “KONTROLPEAN HILERO”

Gobela ibaitik hurbil dagoen Lejarreta kaleko auzokoan kekei erantzunez, *“hilero-hilero arratoien kontrako tratamendu berezia”* egiten dela adierazi dute udal arduradunek, eta *“auzokoan deiren bat jasoz gero ere tratamendua errepikatzen dutela”*. Hala ere, azterketa baten ostean, karraskariak botatako pozoiz poltsa hilgarriak saihestea eta etxebizitzaren gunera heltzea lortu dutela onartu dute.

BIDIAK ETA TELEFONIA KEXA NAGUSIAK

Kontsumitzaileen Informazio Udala Bulegoak (KIUB) aurten jaso dituen kexen (581) artean bidaien eta hegazkin konpainien zein telefoniaren gainerakoak izan dira gehienak. Hirugarren postuan etxebizitzari buruzkoak daude. Bestalde, informazio eskaerak dira nagusi KIUBn, aurten 6.685 erantzun dituzte.

Bilatu zure Renault "Km.0" Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

Prest

umeentzako Bapigabonak ekimena

Bizarra Lepoan euskara elkarteak umeentzako Bapiruke programa martxan dauka aspaldidanik. Ekimenak neguko edo Gabonetako oporraldiari begira Bapigabonak izena hartzen du. Hala, Gabon garaia ate joka daukagun honetan dagoeneko prest daukate antolatzaileek Bapigabonetarako egitaraua. Ekimena 5-12 urte bitarteko umei begirakoa da eta abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 4ra

«Hilaren 26tik urtarrilaren 4ra hamaika ekintza antolatu dituzte»

bitartean gauzatuko da. Ekintzen topagune nagusiak Algortan eta Erromon izango dira (09:00-13:30), baina hortik kanpora egingo diren irteerak ere badira, barbarako PINera (Gabonetako Umeentzako Parkea) eta Gasteizera patinatzerara. Horiez gainera, jolasak, lantegiak eta beste ere prestatu dituzte txikien gozamenarako. m

Informazio gehiago: 94 491 43 57

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Zorionak
eta urtebarri on!

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Idoia Fernandez > Portu Zaharreko bizilaguna

“Portu Zaharreko orubean talasoterapia zentroaz gainera, hotel bat egin nahi ei dute”



Idoia Fernandez. Informazio gehiago: 685 717 965

Bizilagun talde bat urte hasieratik batzen da Portu Zaharrean, auzoko orubean Udalak egin asmo duen proiektuaz arduratuta. “Ez gara partidu politikoa, ez dugu egiturarik, ez gara elkarte bat ere”, argitu dute. Taldeko kide den Idoia Fernandezek azaldu du zertan datza kontua.

—Zergatik batzen zarete auzotarren taldea?
—Iazko abenduan edo, Udalbatzan Portu Zaharreko orubean zer egin eztabaidatu zuten, eta talasoterapia zentro bat izan zen Udalaren proposamena. Otsailean alegazioak aurkeztu ziren proposamenaren kontra (1.200dik gora). Hortik aurrera Portu Zaharreko bizilagun batzuk biltzen hasi ginen, egitasmoa jarraitzeko eta herritarren nahia ezagutzeko. Taldea bultzatzen 8 bat lagun gabilta, asanbladatara jende gehiago dator eta Parte Hartuz-eko batzuk ere biltzen gara.

—Zein da zuen helburua?

—Hasierako asmoa prozesu parte-hartzaile eta zabala bultzatzea zen, orubearan egitasmoa, arazoa, auzokoakaz lantzeko. Ahalegin du ginen prozesu horretan Udalak parte har zezan, ardura har zezan, hainbat bilera egin zituzten eurekaz, baina Udalak esan zuen ez

zuela prozesuan sartu nahi. Orduan, prozesu horrek agian luzeegi joko lukeela iritzita ekintza puntualak egitea erabaki genuen, barbarako hil honen hasieran egindako lan-egia. Bi ardatz eduki ditu: bata, herriko zenbait talde eta Portu Zaharreko auzokoak biltzea eztabaidatzeko zeintzuk ziren herritarrontzat orubearentzako oinarrizko erabilerak; eta bestea zein bide hartu horiek lortzeko. Alabaina, lantegian bertan jakin genuen, Udalak ba ei daukala dagoeneko proiektu nahiko definitu bat oruberako: talasoterapia zentroaz gainera hotel bat ere zabaldu nahi ei dutela eta Sheraton kateagaz hartu-emanak hasi ei dituztela. Txundituta gelditu ginen! Guk uste genuen kontua deskalifikazioen fasean zegoela oraindik! Herritarrei informazioa eman barik proiektua ia guztiz garatu dute. Ez gabilta Galdaretxeko lanen kon-

«Herritar denei begirako zerbait nahi dugu... ez gauza elitista bat»

tuan, hor beste batzuk dabilta, baina orain susmoa dugu bidea zabaltzearena eta oruberakoa ez ete diren proiektu bat eta bakarra.

—Auzokoek zer gurago lukete oruberako?

—Erabilera publikoko zerbait, herritar denei begirakoa, naturagaz eta garapen iraunkorraz bat datorrena, Portu Zaharra ondare historiko eta sozial legez errespetatzen duena; ez gauza elitista bat, murriztua, turismoari zuzendua. Oinarri horietan kontsentsu handia lortu zen lantegian. Hotelak ez ditu asetzen Portu Zaharrekoen eta herritarren nahiak, ezta beharrak ere.

—Orain zein izango da hurrengo pausoa?

—Lantegiko ondorioak-eta txosten batean batzen gabilta, jakitera emateko jendea eta alderdi politikoei. Hilaren 22ko Udalbatzan jorratuko ei dute orubea ekipamendu publikotzat deskalifikatzeko gaia. Bertaratzea da asmoa beste erabilera bat eman diezaioten eskatzeko, Udalak kontuan har dezan beste sentsibilitate bat badagoela herrian. m

“Digitalan” ekimena

Ezintasunen bat daukatenei zuzendutako **teknologia berrien** gaineko programa martxan



Teknologia berrien bidez ezinduak trebatu eta lan eskarmentua jaso dezaten biltzen da

Informazio eta Komunikazio teknologia berrien gaineko enpleguaren aldeko hezkuntza ekimena ipini dute martxan Lantegi Batuak elkarteak eta Getxoko Udalak. Ezintasun fisikoak edo zentsumenezkoak, adimen zailtasunak zein trafikio istripu baten ondorioz ezintasun iraunkorra dutenentzat zuzenduta dago Digitalan izeneko programa.

Hala, teknologia berrien, digitalizazio tekniken eta agiriaren gestioari buruzko hezkuntza jasoko dute hamar lagunek eta, horrez gainera, Lantegi Batuak elkarteak abian ipiniko duen enpresa berri batean kontratua edukitzeko konpromisoa ere jasoko dute parte-hartzaileek. Horren albotik, enpleguaren aldeko orientazioa eta motibazioa, prestakuntza eta praktika

batzuk edukiko dituzte, barbarako, Getxoko dokumentuen digitalizazioa landuko dute.

Lantegi Batuakeko zuzendari Txema Francok adierazi zuenez, *“teknologia berriek gizarteratzeko eta lan munduratzeko eskaintzen dituzten aukeren gaineko sentsibilizazioa lortu nahi dugu programaren bitartez, eta horrekin batera, ezintasunak dituzten pertsonen trebakuntza eta lan eskarmentua aldi berean jaso abal izan dezaten”*.

Digitalan programak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta Europako Gizarte Funtsaren laguntza jaso du. m

Informazio gehiago: 94 466 01 40
behargintza@getxo.net

ERAKUSKETA PRESTATZEKO MATERIAL BILA DABIL LAUAXETA EUSKALTEGIA

Lauaxeta AEK euskaltegiak zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten eta antolatu asmo dituen ekitaldien artean erakusketa bat dago. AEK-k argitaratzen duen *Aizu!* aldizkariak ere 25 urte betetzen ditu aurten eta ospakizun biak batu eta erakusketa bakarra prestatzea da euren asmoa. Horregatik materiala biltzeko deialdia egin dute, Lauaxeta euskaltegian ibili diren guztiei gordeta dauzkaten oroigarriak (argazkiak, kartelak, apunteak, postalak, pegatak...) helarazteko eskatu diete, *“erakusketa ahalik eta aberatsen osatu ahal izateko”*. Materiala Iparbide kaleko 6-behera (Algorta) eroan edota lauaxeta@aeknet.net helbidera bidal daiteke. Erakusketa urtarrilaren 22tik 29ra gauzatuko da ziurrenik.

IZOTZ PISTA SINTETIKOA DA GETXOLANDIAKO BERRIKUNTZA AURTEN

Oporraldiaz eta opariez gainera txikienek badute Gabonetan gozamina hartzeko beste bereizgarri bat Getxon, Getxolandia. Hilaren 22tik urtarrilaren 5era Areetako Geltoki plaza olgetarako errepublika bihurtuko da: zaldiko-maldikoak, herensuge edota lapiko atrakzioak, salto egiteko oheak, puzgarriak... Jolas-parkeko gozagarriez gainera ludoteka eta hainbat lantegi ere antolatuko dituzte. Horrez gainera, Santa Eugenia plazan 300 metro koadroko izotz pista sintetikoa ipiniko dute. Sarrerak 3 euro balio du (6 bidaia).

KOMIKI ARETORA 17.000 LAGUN HURBILDU DIRA

Abenduaren 1etik 3ra egin zen V. Komiki Aretoko 17.000 bisitari izan zituen, iaz baino %13 gehiago. 9. Artearen lurralde getxoztarrak komikilari entzutetsuen bisita ere izan zuen, hala nola: Salvador Larroca valentziarra, Victor Mora (*Capitan Truenoren* sortzailea) Juan Gimenez zientzia fikziozko komikigile argentinarra, Phil Jimenez, Albert Monteys eta Manel Fontdevilla...

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Sabino Lauzirika > itsas-kapitain ohia eta ikerlaria

“Plentziaren antza zuelako, **Placentia** izena jarri zioten bizkaitarrek **Ternuako hiriburuari**”

Ameriketako euskaldunen inguruko liburua irakurtzen ari zela otu zitzion Sabino Lauzirika kapitain ohia Ternuan (Kanada) baleak harrapatzen ibilitako euskaldunei buruzko ikerketa egitea. Itsasgizona izanagatik baino, lana euskalduna izateagatik burutu duela dio leioaztarrak. Kanadako kostaldean dagoen Placentia hiria oinarri hartuta, bertara joandako arrantzaleen historia osatzen ahalegindu da eta ondorio bitxiak atera ditu.



Argazkian, Sabino Lauzirika

—Zelan erabaki zenuen ikerketa aurrera eramatea?

—Ternuako (edo Terranovako) eta Labradorreko kostaldeetan euskal jatorrizko toponimia mantendu dela zioen irakurri nuen liburua. Horrez gain, XVII. eta XVIII. mendeko euskal hilobiak aurkitu izan dituztela nabarmentzen zuen. Gainera, gure Plentzian jatorria daukan Placentia hiria dago han. Euskaldunok ez dugu ia ezer konkistatu. Halere, balearen atzetik Kanadara joan eta han bizitzen geratu ginen, oraindik bertako indigenak bakarrik zeudenean. Idahora, Argentinara... ere joanak gara, baina bertan bazeuden ordurako Europatik joandakoak. Ahaztuta daukagun

gure historiaren gertaera bat dela uste dut.

—Zer dakizu Placentiari buruz?

—Ternuara joandako euskaldunek Placentia izena jarri zioten bertako hiriburuari, Plentziaren antza izugarria zuelako. Orduan, 19.000 bat biztanle zeuzkan. Ez ziren plentziarrak bertara joandakoak, baina bai bizkaitarrak; izan ere, Plentziak

ez zeukan hain urruti joateko itsasontziarik. 1713an, Ipar Amerikako euskaldun kopururik handiena zeukan Placentiak. Halere, 1714an, Utrech-ko ituna sinatu zenean, ingelesek euskaldunak bota egin zituzten frantsesen aliatuak zirelako.

—Euskaldunak Indietara Colon baino lehen heldu zirela diote batzuek...

—Heltzen lehenbizikoak vikingoak, Erik Gorria buru zutela, izan zirela da argi dagoen gauza bakarra. Placentiako (Kanada) Historia Sailak, ordea, euskaldunak 1300.

«Ipar Amerikako euskaldun kopururik handiena zeukan Placentiak»

urtea baino lehen Ternuan ezarri zirela dio eta 1372an han eta Labradorren zergak ordaintzen zituztela. Alabaina, 1510. urtera arte ez zirela heldu dio aditu askok.

—Zertarako erabiltzen zituzten baleak?

—Guztiari ateratzen zitzaion etekina. Espermagaz botikak egiten zituzten! Baina garrantzitsuena animalien koipea zen, argia egiteko erabiltzen zuten erregaia zen-eta. Ternuan zazpi mendez aritu ziren, baleagaz amaitu zuten arte. Gainera, ingelesei aurre egiteko Espainiako armada inolako babesik eskaintzen ez ziela ikusita (Indietako altxorak garrantzitsuagoak ziren), ehiza eten zuten. m

Liburuen bilketa

Dominikar Errepublikan liburutegi bat martxan jartzeko laguntza eskatu du Udalak



Dominikar Errepublikagaz hainbat lankidetzaz hitzarmen sinatu du Leioako Udalak

Santo Domingoko (Dominikar Errepublika) mendebaldean liburutegia eraikitzeko liburuen bilketa egingo du Leioako Udalak.

Orain arte erakundeek egindako ekarpenak kudeatu ditu udalerriko gobernuek, baina ahalegin hori ez da beharizan guztiak asetzeko nahikoa izan eta herritarrei laguntza eskatu die, gura dituzten liburu guztiak eman ditzaten. Hori dela-eta, postontzia jarriko du, abenduan eta urtarilean zehar, Kultur Leioako liburutegian (bigarren solairua).

Liburuena ez da Karibeko herrialdeagaz hitzartutako proiektu bakarra; izan ere, 2001ean, *Bizitzaren abentura* izeneko droga-mendekotasunaren prebentzio programaren

barnean, Lamiakoko Herri Eskola eta Dominikar Errepublikako Pedro Brand Eskola elkarren artean senidetu ziren.

2005ean, berriz, beste aurrerapauso bat eman zuen Leioako Udalak eta Sanjuanetako jai egitarauan *Leioa Solidarioa* izeneko kultur, jai eta elkartasun jarduerak bultzatu zuen. Orduan, 6.000 euro batu zituzten Dominikar Errepublikara bidaltzeko.

Informazio gehiago eskuratu gura izanez gero, 946 072 574 zenbakira deitu edo *liburutegia@leioa.net* helbidera mezu bat idatzi. Bertan zure zalantza guztiak argitzen eta iradokizunak aintzat hartzen ahaleginduko dira egitasmoaren bultzatzaileak. Eskuzabala izan eta parte har ezazu! m

35 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO AURREKONTUA

2007rako aurrekontuan %12ko igoera behin-behinean onartu du Udalak. Horrela, 35.360.000 euro edukiko ditu udalerririk bere beharizan guztiak asetzeko. Karmelo Sainz de la Maza alkatearen esanetan, Lamiakon igogailu panoramikoak, Pinuetan aparkalekua, San Bartolomen kultur etxea eta Txorierrira doan beste errepide bat egiteko erabiliko dute, besteak beste, dirua.

UMEENTZAKO ANTZERKIA NAGUSI ABENDUAN

Umeentzako hainbat antzezlan ekarriko ditu Kultur Leioak. Abenduaren 26an, *Pizti domatzailea* obra Hankatxo eta Txaloren eskutik; abenduaren 27an, *Txanogorritxu eta marrubi zaporeko gaztainak* antzeztuko du Glu-Gluk; abenduaren 28an, Agerre Teatroren *Haur Kabareta*; abenduaren 29an, *Titirikontu Kontari* Gorakadaren eskutik eta abenduaren 30ean, Markelife taldearen *Kartobiraka*.

IPUINARTEAN

ERAKUSKETA ABIAN DA

Hain zuzen ere, abenduaren 4an jarri zuten *Ipuinartean* erakusketa martxan eta urtarilaren 7ra arte edukiko du gura duenak erakusketa bisitatzeko aukera. Artea eta ipuinak, kondairak zein mitologia uztartzen dituzte erakusten diren artelanek; izan ere, horien inspirazio-iturri izan diren testuak ere egongo dira ikusgai hiru hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz eta jatorrizko hizkuntzan (bost kontinenteetako kultura ezberdinetako kontakizunak dira).

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera

Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Uztargi dantza taldeak, 25 urte

1981eko Aberri Egunean eskaini zuten Erandioko dantzariak euren lehenbiziko emanaldia

Rosa Maria Benitok, Rosi ezagutzen dutenentzat, Erandion dantza talde bat sortu beharra zegoela ikusi zuen orain dela 25 urte. Hasierak gogorrak izan baziren ere, 60 bat pertsonak, gazteak guztiak, osatzen duten talde egonkorra da Uztargi gaur egun. Euskal Herriko gainerako taldeek bezala, mutilen falta da daukaten "arazotxo" bakarra; bestela primeran doakie. Rosik eta Ainhoa Amorrortu taldekideak euren esperientzien berri eman digute.



Uztargiko dantzariak taldekide batzuen ezkontzan

1981ean, EAJk Aberri Eguna ospatzeko Bilbon antolatu zuen jaian eskaini zuten lehenbiziko emanaldia Uztargi Dantza Taldeko kideek. Garai hartan neskek bakarrik osatzen zuten Uztargi, baina oso talde majoa osatu zuten. "Urte batzuk geroago mutilak hasi ziren, baina txikiak. Hasieran Leioako mutil bat etortzen zen gugaz entseatzera, ondoren, Txema Amorrortuk hartu zuen erreleboa eta gaur egun berak jarraitzen du. 25 bat pertsona izango ginen orduan", azaldu du Rosik. Hastapenak, beraz, ez ziren batere errazak izan. "Dantzak ikasteko federaziora joan behar nuen eta han ibiltzen nintzen gaztetxoakaz dantzan!".

Dantza da taldearen muina eta Txorie-

riko ia jai guztietan jarduten dute. Horrez gain, dantzari egunetan ere aritzen dira Euskal Herriko gainerako taldeakaz batera. Kanpoan ere dantzatzeko aukera izan dute.

«Hastapenetan neskek bakarrik osatzen zuten Uztargi»

"Aurten, Parisko euskal etxean egon gara Erandioko Udalak antolatutako bidaiari. Esperientzia oso polita izan da eta hiria ezagutzeko aukera izan dugu", nabarmendu du

Ainhoak.

Hala eta guztiz ere, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte Uztargikoek; hala nola, aratusteetako mozorro jaiak, Olentzoren kalejira... "1999an danbornada egin genuen Sanagustinetan Erandioko koloreakaz (urdina eta zuria) jantziak. Buruan sartu zitzaidan hori egitea eta ez nintzen geldirik egon lortu arte. Hiru urtez egin genuen, baina gaurko umeez ez daukate gogorik danborragaz entseatzeko. Pena handia da, hain polita izan zen!", gogoratu du etsita Rosik. m

Pasealeku berria

Altzagako erriberako boulevardaren lanak 2007ko otsailean hasiko dituzte



Altzagako erriberaren itxura zeharo aldatuko da 2007an

Altzagako erriberan egingo duten pasealekuaren lanak 2007ko otsailean hasia eta 10 hilabete irauntzea espero dute Udaleko ordezkariak. 3.200 metro koadroko azalera burutuko dituzte aldaketak. Hori dela-eta, proiektua esleitzeko lehenbiziko urratsak ematen hasi dira daborduko. Erandioko zonalderik ezagunenetakoa bat zeharo eraberritzea da proiektuaren helburua.

ARN enpresan hasi eta kaian amaituko den oinezkoentzat aurreikusitako tarreak 300 metro edukiko ditu. Bertan, jesarlekuak, sarrontziak eta farolak ipiniko dituzte. Pasealekua irekitzeak, beraz, bertan dagoen hainbat auto biltzen dituen behin-behineko

aparlekua kentzea ekarriko du.

Boulevard berria eta bidearen artean arbolak edukiko dituen lorategia jarriko dute; noranzko bietan doazen ibilgailuak ez ikustez gain, horiek sortzen duten zarataren intentsitatea txikitzeko. Horrez gain, hainbat begiraleku eraikiko dituzte itsasadarrari begira, erandioztarren artean bertan arrantzatzeo ohitura hedatuta dago-eta.

Etorkizunean, berriz, lanen bigarren fase bat emango dela jakinarazi dute Udaletik. Pasealekua Barakaldogaz lotuko duen zubia egin gura dute eta ibaia zeharkatzeko itsasontzietako txartelak erosteko eraikina kafetegi bihurtu. m

BILBO DA ALTZAGA IKASTOLAKO KIROL INSTALAZIOEN JABEA

Alzaga Ikastolako lursailaren zati bat Bilbori dagokio. Zehazki, futbol zelaiaren eta atletismo pistaren jabe da Bizkaiko hiriburua. Hori dela-eta, instalazioak nahiko zahartuta dauden arren, Udalak ezin dezake inolako hobekuntzarik egin, ez diotelako horretarako diru-laguntzarik ematen. Hori dela-eta, Bilboko Udalgaz batzartzea aurreikusi dute Erandioko udal ordezkariak, arazoari konponbide bat ahalik eta arinen bilatzeko.

LABURREN ZINEMALDIAN IZENA EMATEKO EPEA URTARRILEAN IREKITA

Erandioko IV. Film Laburren Zinemaldian izena emateko epea 2007ko urtarrilaren 1etik apirilaren 23ra arte egongo da irekita. Zinemaldia maiatzaren bigarren astean egingo da. Argibide gehiago gura duenak Erandioko Udaleko Kultura Arloa jo dezake edo honako telefonoetara deitu: 94 489 01 40, 94 602 58 91 edo 94 602 58 99. Era berean, posta elektronikoko bidez eska daiteke informazioa: gazteinfo@erandioko-udala.net edo kultura@erandioko-udala.net

2007RAKO AURREKONTUAK ONARTU DITU UDALAK

35.761.000 euroko aurrekontua onartu du Erandioko Udalak 2007ko ekitaldirako, 10.652.100 euroko inbertsioagaz. Horrela banatu du dirua: 1.700.000 euro zerbitzu kulturalerako eta ekipamenduetarako (Goikoako gizarte eta asistentzia zentro berria); 1.390.000 euro kirol instalazioerako; 1.310.800 euro plaza, lorategi eta parkeerako; 2.200.000 euro errepide eta urbanizazioerako; 470.000 euro Alzagako Haur Eskolarako; 150.000 euro Tartangako ikuztegia berritzeko; eta azkenik, 300.000 euro udalerriko auzoetan saneamendu eta estolderia berritzeko.

Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

Alberto Bilbao > Bilbao burdindendako jabea

“Ezin duzu **denda handiakaz konpetitu**, gauza ezberdinak eskaintzen ahalegindu behar duzu”

Betidanik Sopelan egon den negozioa da Bilbaotarrena. Orain dela 33 urte ireki zuen Albertoren amak, Luciak, burdindenda Landabe kalean eta gaur egun gauzak zeharo aldatu badira ere (merkatu erraldoien aroan bizi gara), lehen beste edo gehiago saltzen duela dio harrotasunez jabeak. Egia dela ematen du, gainera; izan ere, joan den azaroaren 9an udalerriko enpresa onenari Txopela eskuratu zuen.

Lehengo garaiak burura ekartzen dizkigun denda horietako bat da Sopelako Bilbao burdindenda. Egurrezko apalak eta salmahaia, txoko guztietatik pilatuta dauden kartoizko kutxak, platerak, zapatilak, abarketak, torlojuak, arrainetan joateko sarabardoak, oparirako euskal produktuak, izenik ez daukaten erabilera ezezaguneko gailu txikiak... Denetarik saltzen du Albertok bere dendatxoan! “Lehen arrantzanako eta ehizarako material gehiago geneukan. Pentsa, armak ere saltzen genituen”, nabarmendu du gazteak.

Usaina ere bestelakoa izaten da leku horietan, atsegina eta zaharra aldi berean. Jabeak ez du dendaren antzinako esentzia galdu ezta produktuak biltzeko erabiltzen duen paper marroixkan ere. Dendak 33 urte egin ditu horrela eta ez du ematen Bilbaotarrek



Albertok herriko enpresa onenari Txopela jaso zuen joan den azaroaren 9an

aldatzeko itxaropena daukatenik. “Herriko denda asko eraberritu dituzte, saltzeko era ere aldatu dute; baina guk ez. Jendeari hemen

«Jendeari hemengo nahasmena ikustea gustatzen zaio»

dagoen nahasmena ikustea gustatzen zaio. Gainera, horrela ondo dago niretzat ere. Guztia atonduz gero, galduta ibiliko nintzate-

keela uste dut...”

Bezeroei egiten zaien harrera ere bestelakoa da eta horiek ez dute, normalean, euren istorio pertsonala Albertori kontatzeko aukera pasatzen uzten. “Denda handiek ez dizute tratu hori emango. Ezin duzu eurek az konpetitu eta gauza ezberdinak eskaini behar dituzte”.

Pozik agertu da, beraz, joan den hilean jasotako Txopel sariagaz. “Batez ere, ama poztarren dagoelako”. m

LAKIAK
Taberna

Gabon zorientsuak!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

San Andres eguna

Urtero legez, azaroaren 30ean, jende ugari bildu zen Ander Deunako baselizaren inguruan, meza entzuteaz gain, santuaren omenez prestatzen diren pintxo goxo-goxoak dastatzeko. Udaleko ordezkariak, berriz, kalejira egin zuten Udaletxetik baselizaraino, Barinatxe Taldearen txistuen doinuakaz. Eguraldi onak lagundu zuen; baita ikastetxe zein eskoletako greba orokorrak ere eta inoiz baino ume gehiago bildu zen elizaren inguruan egin zuten erromerian. Giro polita, benetan, sopeloztarrek bizi izan zutena!



DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilom@euskalnet.net

01 SOPELNET S.L.

- Jokoak sarean
- Txapelketak
- Txat
- Internet
- E-mail
- Lanak

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

☎ 94 676 00 62- Fax:94

ANDER DEUNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

BERANGOKO TXIRRINDULARI ELKARTEA BIZKAIKO ONENA

Bizkaiko kirol eskolarik onena izendatu dute Berangoko Txirrindulari elkarteak. Prohibitzia osoko txirrindulari gazteen elkarte handiena da. 5 eta 14 urte bitarteko 45 gazte, 8 entrenatzaile, prestatzaile fisiko bat eta kirol aholkulari bat daude taldean. Bizkaiko Txirrindulari federazioak, txikien artean kirola sustatzeko egiten duten lana eta Berangon proba ziklistak antolatzeke ahalegina baloratu du saria ematerako orduan. Javier Garcia elkarteak presidentea oso pozik agertu da sariarekin: *“Azken batean onartu delako kirol zoragarri hau gazteen artean bultzatzeko egiten duen lana”*.

TXIKIENTZAKO EKINTZA UGARI GABONETAKO OPORRETAN

Berangoko umeek ez dute aspertzeko denborarik izango gabonetako oporretan. Izan ere, kultur etxeek ekintza ugari antolatzen dituzte gazteenentzat. Urtea amaitu baino lehen, *Txirri, Mirri eta Txirribiton* pailasoen emanaldiaz eta *Pin* Bilboko haur parkeaz gozatu ahal izango dute nahi dutenak. 2007ko egitarauari hasiera emateko, buztin tailerra, Gasteizko izotz pista irteera, eta Erregeen kabalgata izango da. Azken honetan parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du Santa Anako kultur etxean.

GAZTEENTZAKO PARKEA ETA GAU BEREZIA URTEA AMAITZEKO

Berangoko Udalak, gazteentzako parkea jarriko du frontoian gabonetako oporretan 10-18 urte bitarteko gazteentzat. Goizez 11:00etatik 14:00etara irekiko dute eta arratsaldean, 17:00etatik-19:00etara. Horrez gain, abenduaren 29rako, jai berezia antolatuko dute *Inuzenteen eguna* dela-eta Berango gaua egitasmoaren barnean.

Loteria Sopena

Iparragirre 6, Sopena

Esther Zorrozua > idazlea

“Bilbo niretzat zerbait berezia da, guztiontzat gure jaioterria den bezala”



Esther Zorrozua

Ez da Esther Zorrozua berangoztarra elkarriketatzen dugun lehenengo aldia. Izan ere, 2004an, bere lehen nobela argitaratu zuenean, berarekin berba egiteko aukera izan genuen. Oraingoan “Bilbao ciudad abierta” obra kaleratu du, Bilbori buruzko 12 ipuin labur.

—Bigarren nobela kaleratzera ausartu zara, horrek esan gura du lehenengoarekin esperientzia ona izan zenuela?

—Lehenengo eta behin esan behar dut hau ez dela nobela bat. Ipuin antzekoak dira, 12 ipuin labur. Aurrekoa kaleratu nuenean hau idatzita zegoen. Orain dela gutxi hasi nintzen argitaletxeekin kontaktuan jartzen, aurrekoaren arrakasta ikusita animatu nintzen. Bigarrena argitaratzea lehenengo baino errazago izan da, argitaletxe berarekin kaleratu dut, Hiru argitaletxearekin hain zuzen. Idazteko errazago izan da, ipuin laburrak hobeto menperatzen dira. Sede Callejaren *Cuentos y Leyendas de Bilbao* obran Bilbori buruzko ipuinak ere

idatzi nituen.

—*“Elkarri lotuta dauden Bilbori buruzko 12 istorio”* dira. Ze Bilbo da irudikatu duzuna?

—Gaur eguneko Bilbo. Istorio bakoitza auzo batean gertatzen da. Momentu batean lehenengo ipuineko protagonistak bigarrenkoa ezagutzen du eta horrela, azkenean, denak elkarrekin harremanetan ipintzen dira, Bilbo osoa ezagutzeko aukera emanez.

—Bilbotarren asmoak eta frustazioak irudikatzen dituzu. Zelan ikusten dituzu Bilbo eta bilbotarrak?

—Bilbo niretzat zerbait berezia da, guztiontzat gure jaioterria den bezala. Baina hiri guztiak bezala, bere alde txarrak ditu. Izenburua *“Roma citta aperta”* Rosselliniaren pelikulatik hartu dut, nahiz eta pelikularekin zerikusirik ez daukan. Pelikulan Erroma gerran zegoen eta nik irudikatu nahi dudana kontrako da:

«Idazteko errazagoa izan da, ipuinak hobeto menperatzen dira-eta»

Bilbo guztientzat irekia dagoen hiria dela. Pertsonaien istorioetan itxaropena zabalik uzten dut, arazoak dituzte, baina argia ikusten da amaieran. Bilbotarrei berdina gertatzen zaiela pentsatu nahi dut.

—Durangoko azokan aurkeztu duzu liburua, zelan ikusten duzu?

—Oso ondo dago, nahiz eta gero estadistikak ikusita, izen handiko idazlea ez bazara, ez den gehiegi saltzen. Titulu berri asko agertzen dira eta horregatik zaila egiten da saltzea. Baina esperientzia oso polita da: jendea ezagutu, beste idazleekin kontaktuan egon... eskaparate ona da Durangoko azoka.

—Euskalduna izanda, ez zara euskaraz idaztera animatzen?

—Euskaraz berba egiteko bai, baina idazteko... hizkuntzak errespeto handia merezi du eta oraindik ez naiz ausartzen, baina, bai, gustatuko litzaidake. m

Jose Calzada > Gorlizko zaldi-lasterketaren antolatzailea

“Abenduaren 24rako zaldi-lasterketa antolatu dugu Gorlizko hondartzan”



Jose Calzadak 12 urte daroaz zaldi-lasterketak antolatzen

Aurten ere, zaldien lasterketa ikusteko aukera edukiko dugu Gorlizko hondartzan. Hitzordua abenduaren 24an izango da, eguerdiko 12:00etan; lasterketak itsas-beheragaz bat egin behar du-eta.

11. edizioa da aurtengoa eta hasieratik antolatzaile lanetan ibili da Jose Calzada. *“Benetan 12 urte dira egitasmoagaz hasi gine-la, baina urte batean salto eta trineo erakusketak bakarrik egin genuen”*, zehaztu du Calzadak. Orduan lagun arteko gauza izan zen zaldien egitasmoa aurrera eramatearena.

Beti bezala, kategoria bitan banatuta korrituko dute zaldiek: alde batetik, odol garbikoak eta, bestetik, gurutzatutakoak. Bestalde, talde bakoitzean hiru sari egongo dira: 600 eurokoa, 300 eurokoa eta 150 eurokoa, hain zuzen ere.

Txapelketa antolatzea nahiko konplikatu dela nabarmendu du antolatzaileak, *“itsasoaren gorabeherak kontuan izateaz gain, aseguruak kontratatzea ere beharrezkoa izaten delako”*. Horrela, jockey-ek federatu-

ta egon behar dute eta publikoarentzat aseguru kontratatzen dute.

Horrez gain, gax egiten zaie Euskal Herriko parte hartzaileak erakartzea. *“Gehienak Kantabriakoak dira, han tradizioa handiagoa da-eta. Hango probak, esaterako, Espainiako txapelketarako puntuagarriak dira. Lehen, lasterketa lokalak ere egiten ginituen, baina jendeak etortzeari utzi zion”*.

«Parte hartzaile gehienak Kantabriakoak dira, han tradizioa handiagoa da-eta»

Beraz, horren ordez, animalien erakusketak eta bestelako ekintzak antolatzen hasi ziren. *“Aurten pottokak ekarri gura ditugu eta tiroko zaldiak erakustaldi bat egin, antzina bezala, uretatik enborrak ateratzen. Sano ikusgarria da hori!”*. Hala ere, pottokena oraindik zurrak ez dela aitortu du Jose Calzadak eta horren ordez agian astoen lasterketa egingo dutela nabarmendu du. *“Oso dibertigarriak dira, umeentzat batez ere”*. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

SAHARAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA

III. Saharar herriarekin elkartasun karabana antolatu dute Euskal Herriko hainbat elkartek. Honen helburu nagusia, Tindufen errefuxiatutako saharauiek dituzten elikadura arazoak, ahal den neurrian, arintzea da. Atuna, dilistak, arrosa eta konpresak dira bilduko diren produktuak. Gorlizko Udalak, ekimen honekin bat egin du eta elikagaiak biltzeko gune bi ipini ditu: Kultur Etxea (Kruzeta Kalea 5) eta Udal bulegoak (Udaletxeko beheko solairuan). Laguntza ekonomikoa emateko aukera ere badago, honetarako kontu korronte bat ireki dute. Urtarrilaren 22a izango da ekarpenak egiteko azken eguna. Udalak, aldez aurretik eskertu gura du herriaren laguntza.

Kontu zenbakia: 3035-0080-94-0800054177

ARMINTZA ERABERRITZEKO OBRAK HASI DIRA

Lemoizko Udalak 1.196.000 euro emango ditu Armintza hiriguneko berrikuntza lanetarako. Dagoeneko obrak hasi dira eta zazpi hilabetez luzatzea aurreikusita dago. Herriko gune garrantzitsuen arteko oinezkoentzako bideak hobetzea da berrikuntzen helburu nagusia, eliza, frontoia, osasun-zentroa eta portuaren arteko komunikazioa errazteko. Argiztapenak paper garrantzitsua izango du, izan ere, honen bidez inguruaren edertasuna nabarmentzea espero da-eta. Obrak, garapen iraunkorraren irizpideak kontuan hartuz egingo dira, ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien egiteko.

PLENTZIA

Urtarrilean hasiko dira Plentzia Telebistaren emisioak



Egunero bi orduz emitutuko du PTB-k

Urtarrilean hasiko dira emititzen Nerea Ibargurengoitia, Edurne San Pelayo eta parte hartu nahi duten herritar guztiak. Hiru izango dira proiektu honen helburu nagusiak: euskararen normalkuntzan laguntzea, herritarrei ikus-entzunezkoen mundurako sarrera erraztea eta herri-komunikaziorako erreminta egoki bat sortzea.

Bi orduz emitituko dute egunero eta programazioa hiru atal nagusitan banatuta egongo da. Alde batetik, kirolak izango ditugu. Atal honetan herriko taldeen denboraldien

errepasoa eta partiden erretransmisioa izango dira nagusi. Bestetik, antzinako kontuak gogora ekarri nahi dituenarentzat, *Atzokoak gaur* saioa egongo da. Honetan, berreskuratutako 3.500 grabazio orduak ipiniko dituzte ikusgai. Gainerako denbora, ekoizpen propiorako izango da: erreportajeak, informazio lagungarria eta saio bereziak.

Deialdia parte hartu nahi duen edonori irekita dago, kolaboratu zein ezagun egin nahi diren guztiak. m

94 677 33 04 / ptb@euskalnet.net

Abe. 22 - urt. 8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► Mercedes Guillenen margolanak. Algortako erakustaretoa. Urtarrilaren 4ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

► Artezale. Erromoko erakustaretoa. Abenduaren 30era arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

LEIOA

► XX. Argazki Lehiaketa. Kultur Leioa. Abenduaren 30era arte. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

PLENTZIA

► Juan Manuel Arensen olioak. Goñi Portal. Abenduaren 30era arte. 11:00-13:00 eta 16:30-21:00.

ANTZERKIA

ERANDIO

► Haur kabareta. Agerre teatroa. Umeentzako antzerkia. Atzaga kiroldegia. Abenduak 27, eguaztena. 19:00.

► Kuko, Truko eta Bolenbaider historian zehar. Adur teatroa. Umeentzako antzerkia. Alzaga kiroldegia. Abenduak 29, barikua. 19:00.

LEIOA

► Pizti domatzailea. Hankatxo eta Txalo produkzioak. Umeentzako antzerkia. Abenduak 26, martitzena. 18:00. Sarrera: 4 euro.

► Txanogorritxu eta marrubi zaporeko gaztainak. Glu-Glu produkzioak. Umeentzako antzerkia. Abenduak 27, eguaztena. 18:00. Sarrera: 4 euro.

► Titirikontu kontari. Gorakada taldea. Umeentzako antzerkia. Abenduak 29, barikua. 18:00. Sarrera: 4 euro.

► Kartobiraka. Markeliñe taldea. Umeentzako antzerkia. Abenduak 30, zapatua.



► Musika

Reggae eta funk doinuak Haizea tabernan

Abenduaren 22an, 23an eta urtarrilaren 5ean Haizea Sessions deituriko musika emanaldiak eskainiko dituzte hainbat DJ-k Gorlizko Haizea tabernan. Hartara, urtarrilaren 22an Parental Advisory Crew-k dream & bass eta reggae estiloko doinuak eskainiko ditu; 23an, Pe-Funk eta Decktope-ek funka eta reggaea landuko dute; eta azkenik, urtarrilaren 5ekoa gau berezia izango da, DJ guztiak batera arituko dira-eta. Azken egun horretan ere, makina bat sorpresa eta gonbidatutako DJak ekarriko dituzte. Emanaldiak 23:30ean hasi eta 4:00ak aldera amaituko dira, azken egunean izan ezik, emanaldiak luzeagoak izango direlako. Beraz, musika ona leku atsegin batean entzuteko aukera paregabea daukazu. Ez galdu!

• Non: Haizea taberna, Gorliz • Noiz: abenduak 22, 23 eta urtarrilak 5

18:00. Sarrera: 4 euro.

ZINEMA

GETXO

► Otros tiempos. Jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Abenduak 22, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► Superman. Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Abenduak 24, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2 euro.

► La fiesta del chivo.

Getxo Antzokia. Abenduak 27, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.

► Pintar o hacer el amor.

Jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Abenduak 29, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► Cars. Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Abenduak 31, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2 euro.

BESTEAK

GETXO

► Getxolandia. Gabonetako parkea. Areetako Geltokia eta Santa Eugenia plazak. Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era arte. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00. Sarrera: 3 euro.

GORLIZ

► Lirain, Lirain Gazte eta Lirain Txiki abesbatzak. Gabonetako kontzertua. Abenduak 23, zapatua. 20:00.

BERANGO

► Kanpanolue umeentzako berbena. Frontoia. Abenduak 23, zapatua. 18:30.

PLENTZIA

► Ludoteka ibiltaria. Goñi Portal. Abenduak 24, domeka. 11:00-14:00 eta 16:30-19:30.

ERANDIO

► Bertso jira: Amets Arzallus eta Xabi Paia. La plaza taberna. Abenduak 22, barikua. 20:00.

► Kontzertua: Alzaga abesbatza, Bilbao Argia obxotea, Mendibaiarte otxotea. San Agustin parrokia. Abenduak 26, martitzena. 20:00.

► Gabonetako XX. kontzertu jaialdia. San Lorenzo parrokia. Abenduaren 27tik 29ra arte. 20:00.

► Txikien Txanda Alzaga: tailerrak, jolasak... Kiroldegia. Abenduaren 26tik 29ra arte. 11:00-14:00 eta 17:00-19:00.

► Txikien Txanda Astrabudia: tailerrak, jolasak... Josu Murueta Kulturunea. Urtarrilaren 2tik 5era arte. 20:00. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

► Oskorri eta Kukubiltxo.

Doktor Do-Re-Mi. Alzaga kiroldegia. Abenduak 26, martitzena. 19:00.

► Txan Magoa. Josu Murueta kulturunea. Urtarrilak 2, martitzena. 13:00.

► Potxin eta Patxin. Indioen lurraldea. Josu Murueta kulturunea. Urtarrilak 4, eguena. 13:00.

BARRIKA

► Txontxongiloak. Kixka taldea. Barrikako Kultur Zentroa. Abenduak 27, eguaztena. 12:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Euskara show

Atzerritik gurera bizitzera etorritako lagunak eta bertokoak elkarrekin kantuan aritu ziren Algortako kasinoan abenduaren 1ean, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako karaokean. Errumania, Bolivia, Belgika edota Ekuadorreko lagunak euskaraz zein euren hizkuntzetan abesten entzuteko aukera paregabea eduki zuen hara bildu zen lagun mordoak. Entzuleek ere -oso animatuta zeuden- parte hartu zuten karaokean pantaila erraldoian kanten letrak jarraituz. Bizipen hunkigarria.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Txitxarro punte

Asier Mentxaka

Ikusgarriak benetan argazkilariak azaroaren 27an bere kameragaz harrapatutako olatutzarrak. Gutxitan ikusi ditugu honelako paisaia eder bezain bortitzak. Oraindik gure planetaren jaun eta jabe dela gogorarazi zigun egun horretan itsasoak, Txitxarro puntako hatxen kontra egitean. Irudi hauek ikustean konturatzen gara gizakiok naturaren ahalmenaren ondoan zein txikerrak garen. Kontuz ibili beharko dugu egin diogun guztiagatik mendekua hartzen duenean...

TXITXARRO PUNTE, BARRIKA.
2006KO AZAROAREN 27A

[berbetan]

Euskaraz, zeozer garrantzi txikikoa dela adierazteko, atariko haizeagaz konparatzen dugu besteak beste. Baina egia esan, haizeari ez eze bestelako eguraldi-gertakarietara ere arreta handiz begiratzen diegu, eguneroko jarduna antolatzeke orduan batik bat. Horretaz askotxo daki Edorta Romanek. Algortarra jaiotzez, sopoloztarra azken hamabi urteotan, haren eskuari zor zaizkio Radio Euskadiko eta Deiaiko eguraldi-iragarpenak. Tira, eskuari bakarrik ez. Zenbait ordenagailu eta programa informatikori, eta etxean daukan estazio meteorologikoari ere bai. Roman fisikaria da. Ikasketen lehenengo hiru urteak Leioan burutu zituen, baina gero Bartzelonara jo zuen, Astronomia eta Meteorologia espezialitatea ikastera. Hasiera batean astronomiak erakartzen zuen, baina denboraz, eguraldiaren gorabeherak bere koadernoan idaztearen ondorioz (izarrei begiratzeko, jakina denez, komeni da hodeirik ez egotea), meteorologiara lerratu zen. Egun batez tenperatura ere idatzi zuen koadernotxoan, hodei kontuen alboan. Orduantxe, eguraldi gizon bat jaio zen.

Edorta Roman

Zeruko berri

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Meteorologia ogibidez...

—Bai, baina berba hori, egia esateko, txarto erabiltzen da. Meteorologoak estatuko beharginak baino ez dira, esangura zabaldu den arren. Nik gustukoago daukat eguraldi gizona. Gainera beste herrialde batzuetan... hara, hemen gutxiespen kutsua ere badauka, eguraldi gizona Gorbeiaiko artzainagaz eta halakoakaz lotzen da. Baina nik gustuko daukat.

—Ba, nik uste nuen Gorbeiaiko artzainak ospe handia zeukala gurean...

—Hara, ez diot zentzu horregaz. Esan gura dut badagoela eboluzio bat, arlo guztietan bezala. Eta meteorologia tradizionala eguraldia iragartzeko modu desberdina da. Haiek ere, zelangura, gauzak behatzen dituzte (landareak, animaliak, zerua...) eta iragarpena bota. Baina jakina, gaur egun bitarteko aurreratuagoak erabiltzen dira -zenbaki bidezko iragarpen metodoak eta abar-, fidagarriagoak.

—Ezin beti fidatu, hala ere...

—Epe luzeko iragarpenei dagokienez, meteorologia zientifikoak alde ilun askotxo dauka, oraindik lan handia dago egiteke. Ohiko iragarpenen gehieneko muga hamabost eguneko da. Eta asko aurreratu da hurrengo bost egunen iragarpenean, baina bost egunetik aurrerakoan lehen pausoak baino ez gara egiten

“Epe luzeko eguraldi-iragarpenei dagokienez asko dago egiteke”

ari. Gero, negua zelakoa izango den eta halako iragarpenak egiten hasiz gero, teoria are ahulagoa da. Joerez berba egiten da eta batzuetan fidagarriagoak ere izan daitezke, baina... Nik, konparazio baterako, ez dut tenpora eta kontu hori guztia sinesten. Izan ere, sinesteaz berba egiten hasi behar badugu, zeozkerk egiten du huts. Ni ez naiz tenporetan aditua, baina

uste dut horrek ez duela balio. Batzuei balio die, hala ere.

—Negua zelakoa izango den iragartzea gatxa dela dinozu...

—Iragartzea ez da gatxa, asmatzea baizik.

—Jakina... Kontuak kontu, era horretako iragarpen asko egiten da. Zelan hartu behar ditugu? Horoskopoa bezala?

—Gure lana horoskopoa baino seriagoa

da, baina ez dauka askoz teoria gehiago, e? Esaten dute hiru iragarpenetik bik asmatu egiten dutela. Ez da gitxi.

—Dena dela, zertan datza negu osorako iragarpen bat? Zer xehetasun maila dauka horrek?

—Irregularitasunez berba egiten da. Badira batez besteko batzuk, eta norberak esan behar du datorren negua batez bes-



teko horietatik zenbat aldentuko den. Beroago ala hotzago. Euri gehiago ala gutxiago. Modan dagoz, ere bai, aitzindariak. Hau da, kausa-ondorio harremanak biltzea. Esaterako, Groenlandia aldean ekaitz asko dagoela ikusi eta, horren arabera, negua hemen epela izango dela jakin. Aurreko urteetan jazo denaren arabera, urtaro jakin batean zer jazoko den iragarri. Azken batean, informatika kontua da guztia. Ze, jakina, halako ereduak sortzeko gai diren programek prozesamendu-ahalmen handia behar dute. Eta gaur egungo ordenagailuak, bost egun barruko iragarpena egiteko, euren ahalmenaren muga dagoz ia. Pentsa, orduan, hilabete bat edo bi barrurako. Azkenean, batez bestekoakaz jokatzeko da, eta batez bestekoak diren heinean fidagarritasuna txikiagoa da.

—Lurralde eremua zabaldu ahala, erreza goa edo gatzagoa da asmatzea?

—Errazagoa, bertako ezaugarriak kontuan hartzen direlako. Euskadi eredu ona da horretan, orografiaren menpe gagoz eta. Mendi eta haran asko dago hemen, eta haran bakoitzak zein norabidetara ematen duen, eguraldia alda daiteke. Baldintza horiek kontuan edukita, iragarpena zehatzagoa izango da.

—Ordenagailuek nekez egiten dituztela bost egun barrurako iragarpenak esan duzu. Zein egun kopurutarako esan daiteke fidagarritasuna oso handia dela?

—Bizpahirurako. Egun bi barruko iragarpenetan, asmatze portzentajea %80-90 izaten da. Hamarretik batean egiten da huts, baina zure ezkontza eguna bada...

—Eta zein izaten da hutsegiteen zergatia? —Atmosferaren jokabide kaotikoa. Ezin dira aldagai guztiak ezagutu. Oso gatzak da, berbarako, tokian tokiko hezetasuna zein izango den jakitea, eta horrek iragarpen desberdinak emon ditzake.

—Eta ez da hobe hala izatea? Alegia, ziurtasun falta horrek ez dio, ba, xarma apur bat emoten honi guztiari?

—Polita da, bai. Eta erronka ere bai. Eta

egun batzuetan gatzagoa da asmatzea, beste batzuetan baino. Horietako batean asmatzea harro egoteko arrazoa da, *plus* bat emoten dizu.

—Noiz da erreza goa huts egitea? Eguraldi ona iragartzen denean, edo txarra?

—Bietan berdin. Baina txarra iragartzen baduzu eta gero ona egiten badu, denak pozik. Jendea amorratzen duena kontrako da. Galizia, Asturias eta Kantabrian ostalariek salaketak ipini izan dituzte

“Eguraldi-iragarpenak ekonomian ere eragiten du gero eta gehiago”

Espainiako Ingurugiro Ministerioaren aurka, iragarpen okerrak direla eta. “Eguraldi txarra egingo zuela esan dute eta ona egin du, baina ez da inor etorri gurea, denak joan dira hegoaldera”. Gure lanaren zati bat ere bada hori. Dena den, beti ipintzen ditut ekonomialariak adibide. Esan diezadala Burtsan aditu batek zer egingo duten nire akzioek hurrengo lauzpabost egunetan. Ez daki, inondik inora! Atmosferaren ezagutza beste alor batzuk baino askoz aurreratuago dago. Horren guztiaren oinarria etorkizuna ezagutzea da, azken batean. Eta uste dut gainerako etorkizun-merkatuak baino hobeto gabiltzala. Batzuek dinoe gurea dela huts eginda ere kobratu egiten den lanbide bakarra.

“Ez dago jakiterik zer eguraldi egongo den hogeitau urte barru”

Nik pentsatzen dut aurrerapenak egin direla, eta jendeak lehen baino konfiantza handiagoa daukala guregan.

—Asmatze berba erabiltzea ere esanguratsua begitantzen zait. Asmatu, hau da, zerbait esan eta ea hori jazotzen den, suertez bailitzan edo...

—Azterketa batez konpara daiteke. Zuk gai batzuk ikasten dituzu, horietatik presatzen dituzu ondo, eta gero azterketan

beste batzuk galdetzen dizkizute. Zenbat eta azterketa hobeto prestatu, aukera gehiago gaintzeko. Gure beharrene ere antzera. Asmatzen dugunaren arabera neurtzen gaituzte, eta gai batzuetan dirutza ere egoten da jokoan. Akordatzen naiz aurtengo neguan energiagaz arazoak egon zirela hemen eta Katalunian. Hotza zela eta, energia eskaera asko handitu zen batean, eta herri batzuk argi barik lotu ziren. Argi-ingar konpainiek ere eskatzen

digute iragarpen zehatzak egin ditzagun, horren arabera erabakitzeke zer egingo duten. AEBetan iragarpen asko egiten da negurako, eta aurreko batean irakurri nuen, petrolioaren prezioan ere eragiten du horrek. Gasoleozko berogailu asko dago, eta negu hitza iragarri badute, gasoleo eskaria handitu egingo da, eta prezioak aldarazi. Ikus dezazun, petrolioaren prezioa bezain gauza garrantzitsuak zelaz eduki dezakeen jatorria eguraldi iragarpena bezain gauza ziurgabea. Eguraldi-iragarpenak, igogailuetako berriketagai izatea ez eze, ekonomian ere eragiten du. Gero eta gehiago.

—Zuk badaukazu estazio bat etxean. Han egiten duzu lan?

—Estazioa gertakariak baieztatzeke erabiltzen dut. Lanbide honetan, ereduakaz egiten da beharra, ordenagailuz. Datuak interenetik jaitsi eta programa baten bidez, Europako datuak nahiz bertoko baldintzak kontuan hartuta, iragarpena egin dezakezu. Estazioko datuak beste iturri batzuetatik lortutakoagaz konparatzeke erabiltzen dira.

—Horoskopoak aipatu ditugu lehen.

Baina horreekaz arazorik ez. Egunkari guztiak irakurri dena ondo aterako zaitzula dinoena topatu arte, eta kito. Eguraldiari dagokionez, berriz, leku eta aldi bererako oso iragarpen desberdinak emoten dituzue komunikabideok?

—Jendeak galdetu egiten du: zelan liteke antzeko datuakaz iragarpen desberdinak emotea? Bada, iragarpen-eredu asko dagoelako, eta gutako bakoitza horietako batez fidatzen delako. Lorenzek, meteorologia modernoaren aitak, zera esan zuen: eguraldia iragartzea zientzia eta artea dela aldi berean. Senak badauka garrantzirik. Guk zeozer jazotzeko posibilitateaz jokatzen dugu, eta beraz, bada alderdi subjektibo bat. Ordenagailuak ez du esaten: euria egingo du, edo ez du euririk egingo. Zeozer jazotzeko zer posibilitate dagoen esaten dizu. Nork bere teknologia eta bere kausa-

ondorio harremanak erabiltzen ditu.

—Honezkerok jakin da, orduan, nork asmatzen du gehien, eta nork gehien huts egin...

—Berdinduta gelditzen da azkeneko, egun baten batek egiten du huts eta hurrengoan besteak. Gero, bakoitza bere gustukoenez fidatzen da. Hori erabiltzaileari dagokio, azken batean hau zerbitzua da eta. Jendeak erabaki behar du ETBkoak, edo Tele5-koak, edo... askotan ala gitxitan asmatzen duten.

—Eta Radio Euskadikoak askotan ala gitxitan asmatzen du?

—Hori ez dut nik esango, erabiltzaileek esan beharko dute.

—Zu ere erabiltzailea zara ordea...

—Eta asmatu egiten dudala esango dizut. Jakina, gehiago fidatzen naiz nire iragarpenez, besteenez baino.

—Eguraldia zehaztasun osoz iragarri ahal izango da inoiz?

—%100ean, ez dut uste, atmosfera kaotikoa delako. Ez dago kausa-ondorio harremanik, hau da, euri egitearen kausa ez da bakarria, asko baizik; faktore askok egiten dute bat, eta euria botatzen du.

—Berba egin dezagun klima aldaketaz.

—Gauza asko esaten dabilta horretaz, besteak beste, zer eguraldi egingo duen 50 urte barru. Ni gitxiago fidatzen naiz horretaz Gorbaiako artzainaz baino. Klima iragarpen horiek oso fidagarritasun eskasekoak dira, ez dago jakiterik zer jazoko den hogeitau edo hogeitau hamar urte barru. Ez dugu atmosferan hain ondo eza gutzen. Eredu batzuek dinoe klima aldaketaren ondorioz Iberiar Penintsulan euri gehiago egingo duela, eta beste batzuek guztiz kontrakoa. Zein sinetsi? m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



Opari banaketa

1964ko Gabonak, Getxoko udaletxea. Orduko agintariak -akaso kontzientzia zuritze ariketa batean- herriko haur behartsuenei opariak banatzen ikus ditzakezue argazki sorta honetan. Hala ere, guri deigarria iruditu zaigu, teoriar behintzat, poztasuna islatu beharko luketen argazkiotan zein alaitasun gutxi ikusten den.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**







zineeskola

Oskar Fernandez

Arte paregabea (I)

Zinema arte paregabea da. Film baten aurrean kontziente edo jakitun ez izan arren, burmuinetako hainbat eta hainbat ahalmen pizten dira pantailatik igarotzen den istorioa jarraitu ahal izateko. Zinemak, orain ikusiko dugunez, efektu integratzailea du. Filmek kontaketa baino ez dute egiten, baina kontaketa hau oso berezia da hizkuntza desberdin eta ugariak erabiltzen baititu: ahoko hizkuntza, musikarena, mugimenduarena, interpretazioarena eta, noski, irudiek daukatena. Honek suposatzen du burmuinak alde asko erabiltzen dituela. Neurona asko aktibatu behar izaten dira aipatutako hizkuntza desberdinetatik sortzen den mezua, informazioa edo esanahia ulertu ahal izateko. Beraz, prozedura logiko-deduktiboak ez eze, beste ahalmen batzuk ere pizten dira. Garuneko bi hemisferioak martxan jarriko dira: ezkerrekoan ahalmen kognitiboak piztu egingo dira eta eskumako hemisferioa musika, espazio, irudimen, emozio eta abarren bidez aktibatu egingo da. Horregatik, filmetako kontaketa beste kontaketa batzuek baino efektu gehiago du burmuinean, garuneko bi alde nabarmenak – kognitiboarena eta emozioarena – batera aktibatzen baitira.

Horrela, Zinemak burmuin osoa estimulatzen du eta pelikula on batek, pentsatzea eragiten duena, balore unibertsalak aldarrikatzen dituena eta zalantza sortzen dituena, ahalmen oso handia du bakoitzaren garapen eta prestakuntzarako, transmititzen duenagatik, iradokitzen duenagatik, pentsarazteagatik eta sentiarazteagatik. Gainera, ezagupen desberdinak elkarrekin konektatzen dira: historikoak, geografikoak, politikoak, psikologikoak, soziologikoak, biografiakoak... Eta eragiten diren aldaketak kognitiboak ez eze, jarrerazkoak, sinesmenenak eta baloreenak ere izaten dira. 4

Pelikuletako Bilbo izan dadin

BiFic zerbitzu publikoa sortu du Bilboko Udalak ikus-entzunezkoak sustatzeko asmoz

Bilbao Film Commission (BiFic) proiektua ipini du martxan Bilboko Udaleko Kultura Sailak, Zinebi Bilboko Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiak babestuta eta bultzatuta. Horrenbestez, BiFic ikus-entzunezkoak sustatzeko udal bulegoa da, zerbitzu publikoa, Bilbo ikus-entzunezkoen miran jartzea helburu duen ekimena. Horrez gainera, arduradunek adierazi legez, helburu nagusiak hurrengoak dira: "Hiria filmen, iragarkien, film laburren eta zinemaren alorreko beste edozein ekintzaren kokagunetzat indartu eta sustatzea; Sektore honetan bertan zein nazioartean dauden profesionalen bilgune izatea; Sektorea dinamizatzea eta Euskadin ikus-



Bilboko Plaza Barria

eskaintzen dute, historia laburra, zaharberritzearen gakoak, eguraldia, zelan heldu... Hala, filmaketak egiteko lekutzeak ere azaltzen dituzte, auzo eta inguruak (Arxanda, Zazpikaleak, Bilbo Zaharra, Plaza Barria, Zabalgunea, Abandoibarra, Olabeaga...), eraikin eta ekipamendu bereziak (Alondiga, igogailuak, udalletea, tranbia, Metroa, Basurtuko ospitalea, Arte Eder Museoa, Guggenheim, Deustuko Unibertsitatea, Arriaga, Euskalduna, Isozaki Atea...).

**Informazio gehiago: www.bific.com
(34) 94 424 86 98 / 94 424 56 24**

«Filmatzeko lekutze, eraikin eta ekipamendu bereziak proposatzen dituzte»

entzunezkoak bizkortzen laguntzea; Zinebi zinemaldia bertan zein nazioarte mailan zabaltzea, bere izen ona, ikusle kopurua eta hedabideetan duen oihartzuna handitzeko".

Sarerako sortu duten webgune eleaniztunean (euskara, gaztelera eta ingelesa) hiriburuaren gaineko informazio orokorra

Ez galdu > "Peindre ou faire l'amour"

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: abenduaren 29a, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Hau da Jean-Marie Larrieu eta Arnaud Larrieu anaia frantziarrek zuzentzen duten laugarren film luzea. Eurek ere idatzi dute gidioa eta benetako pertsonaiengan oinarritu dira horretarako. Ideien eta ezagupenen bila zebiltzan mendixketan etxe bat erosi zuten eta herriko giroan eta ohituretan murgildu ziren. Canneseko Nazioarteko Zinemaldian filma aurkeztu zuten. Istoriari dagokionez, komedia bat da eta gustu handiz kontaturik dago. Erritmoa, planifikazioa, enkuadreak, musika, koloreak eta, jakina, istorioa bera atsegina eta erakargarria da. William eta Madeleine, filmaren protagonistak zahartzarora deitutako eremura hurbiltzen dira. Aspaldian ezkondu ziren, haien arteko amodioak bizirik dirau eta euren arteko harreman onak eta zintzoak izan dira beti. Baina Madeleine Ilunabarra pintatzen zebilen egun hartan gauzak aldatzen hasi ziren.

Klikak ehizatutako rocka

Jon Urbe argazkilariak **rock kontzertuetan** ateratako **200 irudi** batu ditu liburu batean



Etsaiak taldearen argazkiak ere badakartza liburua

Azkenengo 18 urteotan kontzertuz kontzertu ibiltzearen poderioz, rock musikaren hamaika alde bizi eta ehizatu ditu Jon Urbe argazkilariak. Galdutako hainbat salbu (adb. Kortaturen azken aurreko kontzertuarena), milaka irudiren artean aukeraketa egin ostean 200 irudiren aldeko hautua egin eta *Rock & Klik* liburuakaleratu du. Lan horregaz eman dio hasiera Gaztelupeko Hotsak-ek argazkilariaren lanak eta musikagaz lotura duten irudiak plazaratzeko asmoz jaio den "Kajoitxu belza" bilduma berriari.

Ikor Kotx izengoitiazg diharduen argazkilariaren helburua ez zen euskal rock taldeen bilduma osoa sortzea, bere bidean egokitu diren talde-

ak bakarrik agertzen ditu liburua, eta ez dira gutxi: Negu, Barricada, La Polla, RIP, Hertzainak, Delirium Tremens, BAP!, Deabruak Teilatuetan, Tijuana in Blue, Kojon Prieto, Etsaiak, Kuraia... Ostera, euskal rockaren momentu izoztuez gain, badira atzeriko zenbait talderen argazkiak ere, hala nola: B. B. King, Lenny Kravitz, Rosendo, Bryan Adams, Iggy Pop... Lehengo garaikoa 1989koa da, azkenengoa *atzo arnatsaldekoa*. Baina rock musikaren argazkiez gainera, egileak dioen legez, "guztiek islatzen dute gami bateko bizimodua eta orduko giroa". Liburuaren hitzurreak Fermin Muguruzak, FerSapok, Iker Barandiaranek eta Ion Garmendia *Txuriak* idatzi dituzte. m

diskoak

The Atlantic Years
P.O.D.
Dro Atlantic



Reggae, funk, rap eta pop dinuak rock gogorragaz modu ezin hobean nahasten dituen taldea da P.O.D.. Mundu osoan, 6 milioi disko saldu ditu eta kanturik arrakastatsuenak osatutako bilduma kaleratzeke unea heldu zaio. *The Atlantic Years* izenburupean, 1999 eta 2006 urteen artean sortutako 17 abesti ezagun bildu ditu Kaliforniako taldeak. Hori eta gehiago.

Aterqueens
Aterkings
Gaztelupeko hotsak



Elgoibar eta Markinakoen bigarren lana da Aterqueens diskoa. Oraingo honetan lotsabako agertzen dira Aterkingseko musikariak, rock& roll indartsua eskuartean daukatela. Hamar kantu berri aurkeztuta dagoz, beti ere punk-rockaren oinarri berberak mantenduz. Neskei (txarrei, desira pizten dutenei, denbora alperrik galtzen ez dutenei...), edanari, etsaiei... abesten diete batipat.

San Quirico
Karidadeko benta
Gaztelupeko hotsak



Talde musiko-bertsolariaren hirugarren diskoa da honako hau. Italiako herri txiki baten omenez ipini diote San Quirico izenburua lan berriari. Aurreko diskoetan erabili dituzten ekialdeko soinuak baztertu barik, sonoritate berria eman diote bildumako abestiei. Jon Maiak sortua da taldea eta beraren esperientziatik jasotako bertso alaiak, ironikoak, pertsonalak... tartekatzen dira etengabe.

diskoa > Anestesia



Lau urte isilik eman ostean lan berria aurkeztu du Anestesia taldeak, *Terapia*. Nilek (baxu-jotzaileak) taldea uztea erabaki zuen eta zelanbait horrek atzeratu ei du taldearen

bosgarren lana. Ibon, Beloki eta Mikel Kazalisek aurrera egitea erabaki eta azken bi urteotan *Terapia* osatzen ibili dira. Kontzertuetarako hastapenetako Dani baxu-jotzailea bueltan dator, hala Zarauzko laukotea bidean da berriro. Mikelek adierazi duenez, "abiadura handiko hardcore eta trash abestiak daude, baita baita besteetan baino erritmo astunagoak ere". Baina entzun bezain pronto Anestesia dela antzemango dugula ere aurreratu dute, kantek betiko amorruari heldzen diotela, eta estilo aldetik iturri zaharretatik edan dutela. Horrenbestez, egurra emateko gogotsu itzuli dira Anestesiakoak.

diskoa > Gozategi

Azkenengo sei urteotan plazaz plaza ibili badira ere, ez dute disko berri baten beharrik sentitu, baina sortzen jarraitu dute. Hala, Babelmusik disketeke jaioberriak aukera eskaini eta kalean da *Goztgi.kom (:////): Orioko hirukotearen* lana. Betiko legez gizarteko arazoek kritika egiteko darabilte oraingoan ere trikitia, aldarrikapenez beteta dagoen diskoa da eta eurek adierazi moduan "abesti dantzagarri eta hitz zuzenez beterik dago".

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algortia

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Zatoz
odola
ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

GALEA ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31

[liburuak]

Aurtengo sarituak

Zalduaren *Etorkizuna*, Olarrak itzultitako *Estilo ariketak* eta Zubizarretaren *Pantaleon badoa*

Azaro akabuan banatu zituzten 2006ko Euskadi Literatura Sariak, eta ondorengoak saritu dituzte: *Etorkizuna* (Alberdania), *Estilo-ariketak* (Igela), *Pantaleon badoa* (Pamiela) eta *Comida para peces* (Hiru).

Euskarazko Euskadi Literatura saria Iban Zalduaren (Donostia, 1966) azkenengo ipuin liburuak jaso du eta "euskal ipuingintzaren aldarrikapena" izatea gustatuko litzaiokeela adierazi du ipuin idazleak. Saria 18.000 eurokoa da eta beste 3.535 euro itzulpena egiteko.

Literatura itzulpen onenaren Euskadi Saria Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) lortu du Raymond Queneau lan "itzulezina" euskaratzeagatik. "Nolabaiteko mito bat zabaldu du, obra hau frantsesastunari edo frantses hizkuntzaren genie delakoari enabat loturik dagoela esaten duena, eta horregatik itzulezina dela. Baina

«Lehenengo aldiz sarituen artean antzerki lan bat dago»

ez zen hori Queneauaren iritzia, ez eta beste 25 bat hizkuntzara itzuli dugunona ere", azaldu zuen *Estilo-ariketak*-en itzultzaileak sariaren aurkezpenean. Itzulpengintzaren alorrean Euskadi Saria 14.500 eurokoa da.

Haur eta Gazte literatura ataleko Euskadi saria Patxi Zubizarretarentzat (Ordizia, 1964)



Ivan Zaldia eta Patxi Zubizarreta saria jasotzen

izan da bigarrenkoz, 1998an *Gizon izandako mutila* lanagatik ere saritua izan zen-eta. Horrez gainera, *Urrezko Giltza* bere liburuaren izen du Zubizarretak finalisten artean, baina elurrezko panpin Pantaleonen abenturazko lanari emon diote garaikurra orainoan.

Amaitzeko gaztelarazko Euskadi Saria Javier de Dios Lopez idazle madrildarraren antzezlan batek jaso du. Euskadi Saria antzerki lan bati ematen dioten lehenengo aldia da; eta modu berean, lana euskal argitaletxe batek (Hiru) argitaratu badu ere, saria euskal herritarra ez den idazle batek bereganatu lehen aldiz saria. m

liburuak



Begira, begira...
Batzuen artean
Alberdania

Ahoz transmititu zaigun euskal literaturaren tradizioa (ipuinak, poemak, berba-jokoak...) aberastuta ekartzen digute Euskal Herriko hainbat idazle entzutetsuk. Lertxundi, Cano, Igerabide, Txiliku, Ormazabal, Uribe, Murua eta Meabe dira proiektu honen bultzatzaileak.



Maitalea eta...
Harol Pinter
Elkar

Pinterren bost antzerki-lan ez osatuta dagoen antologia itzuli du Iñigo Errastik, Jokin Zaitegi sariketari esker. Idazlearen hasierako garaietako eta gaur egungo lanak biltzen ditu liburuak: *Maitalea*, *Lehenengo denborak*, *Alaska moduko bat*, *Festa giroan* eta *Mendiko hizkuntza*.

[kirola]

Galeako erraldoien zaldunak

Punta Galea Erronka Handia surf lehiaketa antolatatu dute, **EHSFk eta 3Sesentak**



Txapelketaren aurkezpen ekitaldia. Informazio gehiago: www.euskalsurf.com

Aurreko eginahala erakustaldi modura antolatu zuten, eta itsasoaren egoerak ezaugarri berezi batzuk bete behar dituela-eta denboran luzatu behar izan zuten lehia eguna. Baina ekitaldiari interesgarri irizita berriro ere ikuskizuna antolatzea erabaki dute, eta orainoan txapelketa izaera eman diote. Hala, Galeako erraldoiei erasotzeko beldur ez diren zaldun ausarretarikoei parte hartuko dute *Punta Galea Erronka Handia* lehiaketan, edo ingeleseko izenak gogoko dituztenentzat *Punta Galea Big Challenge* txapelketan. Eguna esan legez, itsasoak berak erabakiko du, olatuek aukeratuko dute data (2 egun lehenago jakinaraziko dute arduradunek). Izan ere, olatuek gutxienez 4 metroko altuera eduki beharko dute. Hori bai lehiatzeko epea dagoeneko zabalik dago eta apirilaren 1era arteko tartea zehaztu dute.

Guztira 16 "bigraiderrek", (olatu handietan adituak diren surfariak) jardungo dute. Horietako 9 bat Uribe Kostakoak dira eta esan beharrik ez dago mutil beldurgaitz horiek ondo ezagutzen dituztela Galea aldean sortzen diren egundoko olatuak. Horrenbestez, hu-

renkoak dira: Eneko Acero (Getxo, egutegiak uzten badio), Iker Acero (Getxo), Iker Fuentes (Getxo), Jon Garai (Getxo), Peio Etxebarria (Getxo), Jaime Fernandez (Getxo), Guillermo Barandiaran (Getxo), David Bustamante (Barrrika) eta Aritz Saratxaga (Sopela). Gipuzkoarrak ere ez dira faltako: Aritz Aranburu (Zarautz, egutegiaren arabera), Pablo Garcia (Zarautz), Ibon Amatriain (Zarautz), Asier

«4 metroko olatuak, ibilbide luzekoak, 60 metro altuerako itsaslabarreen hiltzen direnak...»

Muniain (Zarautz), Adur Letamendia (Zarautz), Iñigo Landa (Zarautz), Mikel Agote (Orio) eta Julen Larrañaga (Donostia). Horiez gainera, Pablo Solar kantabriarra ere lehiatuko da. Sarietan 6.800 euro banatuko dituzte (200 euro parte hartzeagatik). Amaitzeko, Galeako olatuak badauzka bereizgarri garrantzitsu batzuk, berbarako: olatu luza da 200 bat metroko ibilbidea duena, oso altua, eta 60 metroko altuerako itsaslabarreen hiltzen da. Beraz, egun handiaren zain! m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-

Lacofris, S.L. SERVICIO



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUN
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Irati Elorrieta > *Wanted* dokumentalaren egilea

“Espazio publikoetan egiten den artea erakustea interesatzen zait”



Irati Elorrieta algortarra Berlingen bizi da gaur egun

26 urte besterik ez baditu ere, Irati Elorrietak zazpi urte daroaz Berlingen bizitzen eta, oraingoz, ez dauka gurera bueltatzeko itxaropenik. Nonoiz Algortara itzuliko dela dio, bertan dauzkan eginbeharreko guztiak amaitzen dituenean agian. Bitartean, Berlingo kaleak eta giroa erabili ditu bere estreinako lana den *Wanted* dokumentala burutzeko. Emaitza majoa lortu duela ematen du, Zinebin ikusgai ipini dute.

—Zer da *Wanted*?

—45 minutuko dokumentala da, kaleko artea erakusten duena. Berlingen zehar egindako paseoa da eta ibilaldi horretan pertsonaia ezberdinak egiten dut topo. Pertsona horiek guztiak artea egiten dute kalean. Jendeak espazio publikoetan zer nolako gauzak egiten dituen erakustea interesatzen zitzaidan eta nik bakarrik egin nuen, kamera eskuan hartuta.

—Gatxa da horrelako proiektu bat aurrera ateratzea?

—Egiten dudana lehenbiziko lana dela kon-

tuan izan beharra dago. Pilo bat ikasi dut, izan ere, arazo eta beldur askori aurre egin behar izan diet. Momentu askotan gogorra izan da eta egiten ari zarenak ezertarako balio ez duela pentsatzen duzu. Indarra aurkitzea batzuetan gatxa da, baina beno, azkenean onik irten naiz. Niri diru-laguntza batzuk eman zizkidaten eta horrek lana amaitzera behartzen zaitu, urte amaieran emaitza jakin batzuk eskatuko dizkizun norbait daukazu-eta. Alde horretatik ondo etorri zait erantzukizun hori.

—Zinebin aurkeztu duzu dokumentala.

—Europako hainbat jaialditara bialdu nuen dokumentala eta, oraingoz, Bilbon eta Kroazian eskaini dute. Alde horretatik oso pozik nago. Oso lan onak aurkeztu dituzte Zinebin, gauza interesgarriak ikusi ditut.

—Zeintzuk dira zure etorkizuneko proiektuak?

—Orain idazten nabil. Euskarazko hamar narrazio dira eta liburu moduan argitaratzea

«Euskaraz idazten nabil eta liburu moduan argitaratzea gustatuko litzaidake»

gustatuko litzaidake. Baina, beno, oraingoz idazten nago eta gero gerokoak! Horrez gain, ordenadorean daukadan bideo material guztia muntatu gura dut. Ikus-entzunezkoei dagokienez, oraingoz nahiago dut dokumentalak jarraitu, baina pertsonalak eta askatasun osoz egiten direnak, ez telebistarako formatua dutenak. Interesa pizten dizkidaten gaiak, berriz, gure bizitzan gertatzen diren gauzak lotuta daude: artea, musika... Nonoiz Euskal Herriagaz zerikusirik daukan zeozer egitea gustatuko litzaidake.

—Berlingen bizi zara. Zelakoa da hango bizimodua?

—Halaxe da, zazpi urte dira dagoeneko! Erasmus beka batez joan nintzen bertara eta Bilbon ikasketak amaitu ondoren bueltatu nintzen geratzeko. Ez da Paris edo Londres bezalakoa, populazioa askoz txikiagoa da eta espazio gehiago dago. Hiriaren historia ere oso berezia da eta gaur egun oraindik nabaritzen da ezberdina dela. Jende asko dago han artearen munduan zein beste alor batzuetan gauzak egiten eta giro horrek asko laguntzen du. Jendearen ilusioak kutsatzen zaitu. Nonoiz Euskal Herrira buelatuko naiz, baina noiz ez dakit. m

Esakere > “Ez hona ta ez hara lotu da akabun”



Zenbet gauze deken eskure gaur egun kapritxoko gauzatan! Jenero danatan itzelezko bariedade... Ogitxu bet erosiko dot, baia zelako? Ogi zuri? Integrala? Lau zerealdune? Ala zortziko? Holan da gaur egun yanarkez, biajakaz, entretenimentuko kontukez... Elejuteko hainbeste askatasune bageuneko egi-egiten inporta dakuzen gauzatan...! Yongo ete da iñora akabun irudiko gizontxu? Ezin eleju, ezin erabagi gabiltzez, gauzatxu batzuten zer eleju lar dauleko, eta beste kontu batzuten, ez dauleko.

Esakeratxu hau Iñaki Gilisastin *Berba lapikokoa* liburu ederratik atara dogu.

Gure **berbakere88**

Testua: **Xabi Bilbao**

GURE AZENTU (XIII)

Berbakere 84en aditz partizipiokaz alkartuten direzen atzizkik ikusten hasi gintzezen, eta esan gendun ekintze amaituko edo bukatuko atzizki kendute (-i, -tu edo Ø) beste atzizki danak azentudunek direzela, edo hobeto esanta, azentudun bihortuten daudela aurrekaz alkartzen dan aditze.

Talde nagosi biten banatute ikusiko doguz horren atzizkik: batetik, **-ta** eta **-keran** (batuan **-tean/-tzean**); eta bestetik, **-te** atzizki eta berau deklinatute sortuten direzenak (**egotek, egoteri, egoteaz, egoteko, eta abar**), eta gero aldiko **-ko**.

-ta eta **-keran** atzizkik azentu emoten deutse auren aurreko silabari. Hamen adibide batzuk:

egon -> egónta (*Holan egónta ez dozue aurreatuten ezer*), egókeran (*Itxiñte egókeran miñe iyérriten dot sorbaladan*)

yan -> yánta, yákeran

sartu -> sartúte, sartúkeran

galdu -> galdúte, galdúkeran

ikusi -> ikúste, ikúskeran

imiñi -> imínte, imínkeran

erre -> erréte, errékeran

-te, eta beragaz batera **-tek**, **-teri** eta deklinabideko beste kasuk, eta **-teko**, bai eta **-ten** atzizkik, orain aldiko ekintzekaz erabilten danak, azentu emoten dautse aditzeri, baia ez aurre-aurreko silabari: silaba bi aurrerago iminten daude azentu, adibidek erakusten dauden lez:

egon -> égote, égoten, égotek, égoteri (...), égoteko (*Hor égote ez da erraz. Lasai égoteko esan dotset*).

sartu -> sártute (edo sártze), sártuten (sártzen), sártutek (sártzek) (...), sártuteko (sártzeko).

galdu -> gáldute (edo gáltze), gálduten (gáltzen), gáldutek (gáltzek) (...), gálduteko (gáltzeko).

ikusi -> íkuste, íkusten, íkustek, íkusteri (...), íkusteko.

imiñi -> imínte, imínten, imíntek, imínteri (...), imínteko.

erre -> érrete, érreten, érretek, (...) érreteko.

Eta beste horrenbeste egiten dau gero aldiko **-ko** atzizkik: *égongo, sártuko, gálduko, íkusko, imingo, érreko,...* (*Etxetik urten eziñik égongo gara laster, hainbeste haxéaz!*). Eta gaurkoz hemen itxiko dogu. Agur!

I


Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehomak - Aldizkariak - Libarreiak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
T: 460 02 88
GETXO ALGORTA


Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoia

Pistoa

eta makailu zatiak pil-pil erara

Hauk biak gure sukaldaritzako betiko plater bi dira, ezetz inoiz probatu biak nahastera? Ba emaitza primerakoa da! Hasteko pistoa egingo dugu. Lapiko batean, olio barik, kalabazina eta kipula (laukitan zatituak) su ahulean ipini euren ura askatu arte. Gero oliba olio, piper berdea eta berakatz aleak xerretan zatituak gehitu. Su ahulean eduki ordu erdiz. Noizean behin lapikokoa eragin. Gero tomatea azal barik bota eta dena egin arte sutan eduki. Eginda dagoenean, arrautz irabiatuekin nahastu eta kitto. Bestetik makailu xerrak laukitan zatitu eta pil-pil erara prestatu. Hau da, zartagin batean sutan ipini berakatz. Urreztatzen denean aleak baztertu eta olio epeldu arte itxaron. Gero makailu zatiak bota eta eragin pil-pila lortu arte. Platera azpiko argazkian bezala aurkeztu. On egin! m

osagaiak (bi lagunentzat)
kalabazina, kilo bi • kipula, kilo bat • tomateak, kilo eta erdi
dozena erdi piper berde • berakatz • oliba olio • lau makailu xerra



itsaso arana / jolastokikoa

Kaba

egiteko mahatsak

Ohi baino kaba gehiago edaten da eguberrietan. Bada, oraingoan labur-labur bada ere, goazen edari apartsu eta alai hau egiteko gehien erabiltzen diren mahats zurien ezaugarriak ikustera.

- **Xarel-lo:** noratsun handikoa, bere garraztasun handia eta tinkotasunagatik kabak egiteko gehien erabiltzen dena da. Izan ere, kabari egitura eta indarra ematen dizkio Xarel-lok. Halabeharrez jakin behar da Penedes-eko mahats autoktonoa dela. Mahats aleak azal lodia dauka eta horregatik gutxi gaixotzen da. Ziklo luzea dauka, hau da, goiz ernatzen da eta berandu ondu.
- **Chardonay:** oso ardao aromatikoak ematen ditu, gorpuzdunak eta garraztasun handikoak. Goiz ernatzen da eta bendimiatzen lehenengoa izaten da. Garrantzi handia dauka kabagintzan, hauei ikutu berezia ematen die eta.
- **Macabeo:** garraztasuna eta zahartzeko ezaugarri onak ematen dizkio kabari. Alkohol maila ertainekoa, ezti eta almendro loreen aromak ematen ditu.
- **Parellada:** gutxien erabiltzen dena da, baina horrek ez dio garrantzirik kentzen. Izan ere, bere leuntasunak eta lore aromek, fintasuna ematen diote kabari. Xarel-loaren indarra nolabait ahultzeko baliatzen da.

Bestetik esan behar da kaba gorriak ere egiten direla eta horietarako mahats beltzak erabiltzen direla, esaterako, pinot noir, malvasia, garnatxa...

Urtebarri on! m

La sarten de Cordeleria

Sukaldaritzaren artean trebatzeko aukera



"Kozinatzea arte bat da, badaukazu edo ez", Pura Daroca andaluziarra

Cordeleria kalera sartu eta urteek atzera egiten dutela ematen du. Bertan, 3. zenbakian, Marta Barrie, Pura Daroca eta Lourdes Churrucaren eskola dago. Txoko iluna izan arren, oso gustura egon ginen bertan, etxean bezala. 1997an ireki zuten *La sarten de Cordeleria* eta ordutik hona, 3.000 ikasle baino gehiago pasa dira bertatik. Sektore horretan zegoen hutsunea eta sukaldaritzaren urte horietan hartzen ari zen garrantzia ikusita, aspaldiit buruan bueltaka zeukaten proiektua aurrera eroatea pentsatu zuten hiru etxeokandere hauek.

Barazkiak, makailua, gozokiak, janari txinatarra, italiarra... oso espezialitate ezberdinak lantzen dira Pura eta Lourdesen eskoletan. Urtean 60 ikastarotik gora antolatu dituzte, adin guztietako jendearentzat.

Gabonetan adibidez, umeentzako ikastaro berezia eta gabon sukaldaritzaren ikastaroa antolatu dituzte. Gainera, mundu osotik etorritako punta-puntako sukaldariak pasa dira eskolatik, Jose Mari Gorrotxategi euskalduna, Hiroko Shimbo japoniarra eta Fabio Morissi italiarra, besteak beste. Ikasleak eskolan ikasitakoa etxean praktika dezaten, sukaldaritzaren tresnen denda ere badaukate.

Usainen eta zaporeen artean egindako lanagatik, sari bat baino gehiago irabazi du *La sarten de la Cordeleria* eskolak: Getxoko Udalak emandako "Emprendedoras" saria 1998an eta, Euskal Gastronomia Eskolaren "Llano Gorostiza" saria 2005ean. m

Cordeleria kalea 3 (Areeta)
Tel.: 94 463 41 88

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara,
Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

GABONETAN

- Tolosako *Eceiza* turroia
- Bilboko Correos kaleko turroia (Eladio Ibañez Coloma)
- Ardoak eta txanpanak

zorionak
eta
urteberri on!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoa
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Asado r



- Zabalik egunero
 - Eguneroko menuak
 - Enpresa menuak
 - Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gaez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak
- Aretxondo 14**
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Izugarrizko hotza egiten du. Barruraino, hezurretaraino, sartzen den izotzeko orratza ematen du ipar haizeak. Eskularruak, txanoa eta bufanda jantzi eta osteratxo bat ematera irten. Ez al diote ba hotza ona dela azalerako?</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Zergatik ez duzu gidabaimena behingoz ateratzen? Gaur egun autoa beharrezkoa da edozein lanetarako eta kriston independentzia emango dizu, kontuan izanda, gainera, zu bizi zaren lekutik ez dela autobusik pasatzen.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Lo gehiago egin behar duzu. Begiak zabaldu ezinean ibiltzen zara beharrea eta horrek ondorio latzak sortu ditzake zure osasunean. Gainera, ez diozu zure lanaldiari etekin bera ateratzen. Egizu lo zortzi ordu gutxienez!</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Politak dira eskuz egiten dituzun belarriko horiek. Zergatik ez dituzu ezagunen artean saltzen? Nork daki, agian dirutxu bat atera dezakezu asteburu bateko parranda ordaintzeko. Saiatu, ez duzu ezer galtzen-eta.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Zenbat denbora darozazu aitagaz berba egin barik? Ez al duzu uste ordua dela? Badakit beragaz bizitzea oso gaxa dela, baina azken finean zure aita da eta jasan beharko duzu. Orduan, zergatik ez ahalki eta hoberen konpondu?</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) "Din-dan-don, din-dan-don eguberri oooooo...". Hemen dira Gabonak! Egun batzuk besterik ez dira falta. Zer eskatuko diozu Olanterori? Eta urte berriari? Ondo pasa familiagaz, lagunakaz eta, nola ez, maitaleagaz.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Txakur bat erostekotan zaude eta ez duzula etxean ezer esango? Buenoo... ez dakit hori ideia oso ona den. Nik zure asmoaren berri emango nuke, badaezpada ere. Pentsa maskota berria ez badute onartzen. Orduan zer?</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Izugarri maite zaitu, benetan. Ez zalantzarik izan. Galdera da: zuk bera maite duzu? Argi eduki beharreko zerbait da, bestela, min egin diezaiokezu... Sentimenduak ez da jolasten, nagusitxua zara horretarako.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Alde batetik, etxetik alde egin gura duzu zure bikotekideagaz bizitzeko; baina, beste aldetik, pena ematen dizu gurasoak uztea. Bizitza horrela da baina! Beraiek ulertzen dute eta pozik daude zure bidea egingo duzulako.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Musikazalea zara oso, baina ezin zaitezke eguneko 24 orduak kaskoakaz ipinita ibili. Aski da! Errespetu falta da askotan eta bestetan tentela ematen duzu. Ez zaitez haserretu, nire gomendioa besterik ez da.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Orain urtea amaitzeaz dagoela... Planik baduzu 2007rako ala betiko legez jarraituko duzu? Makina bat proiektugaz hasten dugu aro berria, gerora betetzen ez direnak. 2006koak zintzilik dituzula oraindik? Denok legez.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Zorte txarra izaten ari zara azkenaldian. Agian zure izarra amatatu egin da, nork daki! Berrituzko da, trankil. Guztiok ditugu bolada txarrak. Bizitzaren azukrea eta gatza, gaua eta aguna, positiboa eta negatiboa...</p>



mungia OKINdegia

*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

**KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA**



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Ipar., orratzak, buruorratzak. 2. Irabazi den lehiaketaren ordaintzat hartzen den ondasuna. Hosto. 3. Oinarizko janari. Frantziako eskuindarren alderdi ohia. Tullioaren ikurra. 4. Balearen koipea. Barazki mota. 5. Ustekabeko esaldi bitxi barregarria. 6. Emakumearen hileroko berezko desagertzea. 7. Lizarrako ibaia. Ogi, hitz elkartetan. Eta, inglesez. 8. Lehen pertsona. Zati. Titanioaren ikurra. 9. (Errep.) Ezkilaren ukaldia. Gipuz., eliza. 10. Ezeztapena. Ez emeak.

Goitik behera

1. Bakartze. 2. Saguak harrapatzeko tresnak edo arteak. 3. Lege hauste handia. Har ezan. 4. Bi. Zoro. Lehen bokala. Bokala. 5. Oti, intsektu jauzkari, nekazariantzat oso kaltegarri. 6. lodoren ikurra. Sabaikaria, mihia aho sabai gogorrera hurbilduz ebakitzen den ahotsa. 7. Galdetzaila. Dauka. Pinu. 8. Bromoaren ikurra. Erraz. Iridioaren ikurra. 9. Artzainen lan eta bizibidea. 10. Zaldiek eta beste abere batzek lepagainean dituzten zurden multzoa. Auhanak, deitoreak.

Soluzioak

K	V	R	R	V	A	K	O	K	U							
V	Z	I	E	L	E	N	V	D	A							
I	T	L	V	A	T	A	N	I	N							
D	N	A	T	O	V	A	G	E	A							
V	I	S	U	P	O	N	E	M	E							
V	A	I	D	I	A	L	T	E	R	A	L	D	I	A	L	
V	Z	V	A	R	A	V	E	R	A	L	U	M	E	R	A	L
T	M	T	R	P	R	A	O	G	I	A	R	P	R	A	O	G
S	A	R	I	A	O	R	I	S	A	R	I	A	O	R	I	S
K	I	L	I	N	B	A	K	I	L	I	N	B	A	K	I	L



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Jentila zen
- Ogibidez, ikazkina
- Tripontzia

> Aurrekoaren erantzuna: Harkaitz Cano

> Irabazlea: **Amaia Alonso (Algorta) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



JOSEBA BUENOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areatxu fanfarrea Bidaxunen, 1982

Fanfarrea hau 1981eko urrian sortu zen, baita izen berbera duen txokoa ere. Argazkia, hurrengo urtekoa da, Iparraldeko Bidaxunen ateratakoa. Areatxu (Arrigunaga hondartzako ezkeraldea) izena San Nikolas plazako lagunartearena ere bada; oraingoek 9. eta azken belaunaldia direla diote. Azken hamar edo hamaika urtean, baina, Kutxus Areatxu da fanfarrearen izena.

Herritarrek beti onartu eta eskertu egin dute fanfarrearen lana, alaitasuna, ... eta hainbat modutan lagundu ere, ahal izan dutenean. Adibide bezala, Juan Pedro Guzmanek egindakoa; berak, bere Club Deportivo Galean daukan baserrian, txokoa utzi die saioetarako azken bi urtean (argia ere ez dute pagatzen). Hori bai txalotzekoa!

Aurtengo azken Flash Back hau Algortako Kutxus Areatxu fanfarreari eskaini diogu, merezimendu osoz, ez bakarrik zilarrezko ezteiak (1981-2006) ospatzen dituelako, baizik eta, batez ere, edozein ekintzatan (euskara, euskal kultura, kirol taldeak, herriko jaiak, etab.) beti laguntzeko prest dagoelako, musu truk. Horrela jarrai ezazue! Zorionak Kutxus Areatxu! m

Zutunik: Juango Zubiaga, Patxi Garate, Ernesto, Joseba Bueno, Paco Lezkano, David Leamon *El Ingles*, Txema Santamaria *Patata*.

Jesarrita: Jose Ramon Learra *Chato*, Josu Capetillo, Javi Delgado *Preve*, Julio Jaen *Kutxus* (GB), Ketxu Lopez de Gereñu, Jon Muro, Javier Iñarra.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

XABIER MADARIAGA > kazetaria

“Zailena desberdin pentsatzen duenari entzutea izaten da”

Testua: **Maitane Nerekan**



Xabier Israelen gas negar-eragileaz babesten

Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Kuxkuxeroa eta pazientzia gutxikoa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Good Night. Good Luck-en aurkezlearen papera egitea gustatuko litzaidake.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Arafat, nire lanerako suposatuta duenagatik.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Berandu heltzea, oso inpuntuala naiz.

Aitor dezakezun bizio bat.

Festazale amorratua naiz.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Egiptoko Sinai penintsulara.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Baten batek agurra ukatzea, sutan jartzen nau.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Gauza material bat esatekotan, Internet. Ez dakit hori gabe nola egingo nituzkeen nire erreportajeak.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?

Ez, hotz handia badago soilik.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

El principe valiente Madrilerako busean.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Bilbo.

Goiza ala gaua?

Gaua, badakizu, gauaz katu guztiak beltzak. m

LABURREAN— 2003ko uztailean, ikus-entzunezko ikasketak Nafarroako Unibertsitatean amaitu orduko alde egin zuen Jerusalemara Xabier Madariagak. Ordura arte hemendik jarraitutako gatazka barrutik ikusten eta kontatzen egon da 3 urtez. Euskal Telebistan, Euskadi Irratian eta Berrian lanean egon da 25 urteko bllbotarra. Gaur egun EITBko albistegietan ikus dezakegu. Nahiz eta batzuetan gogorra egin zaiola onartu, oso pozik dago Palestinan bizitako esperientzarekin, asko ikasi du-eta han. Zailena, desberdin pentsatzen duenari entzutea dela esan digu.


Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euzkara zerbitzua
www.getxo.net

2006-2007
euskarazko
produktuen
katalogoa

www.katalogoa.org

OPARITU EUSKARAZ

KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

BEHIN BATEAN
COSAS
ERKUDEN LIBURUDENDA
ITXAS-IKUS
LA GUSANA LIBURUDENDA
LIBRERÍA ITZIAR
LIBROS PAPELERIA

NORAY LIBURUDENDA
HODOI
LIBRERÍA ZUGATZARTE
ORIXA LIBURUDENDA
BOLIBAR ELORDUI LIBURUDENDA
LIBRERÍA PAPELERIA BLOCK
LIBRERÍA GOBELAURRE

LIBRERÍA LAS ACACIAS
LIBRERÍA MAYOR 29
LIBRERÍA NADAL
LIBRERÍA-ESTANCO SAN JOSE
SEYMA JUGUETTOS